



BOZETARAKO PREST

Maiatzaren 26an izango dira udal eta foru bozak.
Azpeitiko hiru alkategaiekin hitz egin du Uztarriak¹⁶



HORTZ INPLANTE
ETA PROTESIETAN
ADITUAK GARA.

Jose Artetxe kalea, 5 (Arbulatorio ondoan) 20730 Azpeitia


INNOVA
HORTZ KLINIKA

 943 025 955

MILAR LARRAMENDI



Julia Urkiza etorb. 16 | AZKOTIA
Tel. 943 85 18 97



Xabier Munibe 11 (Liburutegi ondoan) | AZKOTIA
Tel. 943 85 00 41 www.sukaldeak.eus

www.milar.eus

ELKARREKIN HEZKUNTZA ERALDATZEN

ETORKIZUNA ESKURA



- Hezkuntza eredu propioa
- Euskalduna
- Herritarra
- Eraldatzailea



azpeitiko
ikastola
ikasberri koop.e.



Loiolako Inazio hiribidea 26, 20730 Azpeitia

Tel.: 943 15 12 46 • www.azpeitikoikastola.eus

**BATXILERGOKO
AURREMATRIKULA**
maiatzak 2tik 14ra

**ZATOZ GU
EZAGUTZERA!**
Eskatu hitzordua

uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria
Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behe,
(Azpeitia, 20730)
Telefona eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
uztarria@uztarria.eus
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 216.a (2019ko maiatza)
Urtea. XX.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685780412 /
uztarria@uztarria.eus
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilero
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. Iñaki Martinez
Webgunea.
www.uztarria.eus

Uztarrria herri aldizkariaren
laguntzaileak



DOMUSA
TEKNIKA



Gipuzkoako
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako
Hezkuntza, Hizkuntza
Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz
lagundua

Oharra. Uztarrriak ez du bere gain hartzen
aldizkarian esandako iritzien erantzukizunik

2019KO MAIATZEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



iritzia

Inkesta. Zein auzotako
festak dituzu
gustukoen? **13**

mamia

Elkarrizketa. Oihana
Aranguren bertso
epailearekin hizketan **04**
Zentrala. Udal
hauteskundeak
gurean: analisia,
hautagaiekin solasean,
herri programak... **16**
Hementxe bertan.
2015etik Azpeitian bizi
da Leonor Palma
andaluziarra **41**

jakiteko

Atzera begira.
Ibilbidea, Nuarbe
sokatira elkartearen
historian barrena **38**


Ba al dakizu desgaitasun onartua duten
31 adin txikiko herritar daudela
Azpeitian? Uztarrria

Izan uztarriaren bazkide **t 943 15 03 58**

**Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak
ere eskuratuko dituzu.** Uztarrria Komunikazio Taldeak
orain arte **13 liburu, CD 1, DVD 1 eta biografia
txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.

1.060 bazkide
gara Uztarrria Komunikazio
Taldean; eskerrik asko denei.

30 euro
dira urtean.



Liburuxka biografikoak, oraingoz. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia,
Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta

OIHANA ARANGUREN

bertso epailea

“Arteetan arteena da niretzat bertsolaritza”

Bertsolaritzarekiko duen miresmenak epailetzara eramandu Oihana Aranguren. Gipuzkoa Bertsotan sailkapen fasean ari da lanean orain.   Ihintza Elustondo

Espezie arraro bat”; halaxe sentitu izan da Oihana Aranguren, behin baino gehiagotan. “Egia esan, kuadrillan ez dut eduki bertsozaletasun giro hori, etxeok nahiz beste lagun batzuek lagundu izan didate saioetara, eta bakarrik ere joan izan naiz, baina orokorrean, neure kasa landutako gai bat izan da”. Umetan ere, bazen beste haurrengandik bereizten zuen zera bat: “Niretzako ez zegoen gai bat eman eta haren inguruko bertsoak idaztea baino etxeko lan hoberik; nire laguntzako tortura bat izaten zen hori”. Halaxe, bertsozaletasunak eragindako kuriositatea tarteko, Gipuzkoako Bertsotale Elkarteke epaile izatera iritsi da. “Bilatutako kasualitate bat izan da”.

Epaile izateko ez al dago bertsolari izan beharrik?

Baldin bazara oinarri handiagoa izango duzu, arauak eta ezagutuko dituzulako, baina ez dago zertan izan. Ni ez naiz sekula bertsolaria izan –bat-batekoa ez behintzat, bertsoak idatzi izan ditudan arren–, baina bertsozalea bai. Arteetan arteena da niretzako bertsolaritza. Antzerkian edo musikan aurrez asko entsea dezakezu, eta ez dut gutxiesten hori, baina bertsolaritzaren bat-batekotasun horrek niretzako sekulako meritua dauka. Txapela kentzen dut nik edozein bertsolarien aurrean, izan elitekoa edo maila baxuagokoa. Inprobisatzeko gaitasuna eta azkartasuna, momentuan ezarritako testuinguruan kokatzea, molde

DATUAK

||| **Jaio.** 1971ko ekainaren 14an.

||| **Herria.** Azpeitia. ||| **Bizitokia.** Loiola. ||| **Lanbidea.** Giza baliabideetako arduraduna altzari enpresa batean.

metrika batean sartzea, segundo gutxitan bertsoa goitik behera osatzea, hizkuntzaren zuzentasuna eta ahozketasunaren bereizgarritasuna baliatzea, kantaerarekin borobiltzea... Niretzako horrelako arterik ez dago. Miresmen handia diet bertsolariei. Denei.

Nondik datorkizu halako zaletasuna?

Zaletasuna betidanik izan dut; etxetik datorkit, gurasoak biak izan dira bertsozaleak. Etxean Juanito Dorronsororen liburu batzuk nituela oroitzen naiz, garaiko bertsolarien biografiak eta jasotzen zituz-

tenak, eta haiek irakurtzen nituen. Umetxo bat izateko, nahikoa atentzio ematen zidaten liburu haiek; bertsoak ere irakurtzen nituen, eta bat edo beste buruz ikasi ere bai. Eta nire irrika izaten zen amaren jaiotetxera, baserrira joan, eta familiako bazkari edo afarietan jendaurrean bertsoak kantatazea. Lasarteren, Uztapideren, Lazkao Txikiren edo Mattinen bertsoak kantatzen nituen, eta han jasotzen nituen txaloek asko balio zuten. *Hitzetik Hortzera* saioak ere jarraitzen nituen; nire lehengusuek eta jolasera alde egiten zuten, baina ni horri begira gelditzen nintzen. Gainera, ikastolan bertsolaritzako ikasgai bat genuen, eta niretzako gozamina zen hura. Laxaro Azkune zen gure irakaslea,



zorte galanta izan nuen berarekin topo egin nuelako. Laxarori esker, etxetik jaso nuen hori indartu zen.

Afizioa izatetik epaile izatera badago koxka.

Beti gustatu izan zait bertsolaritza, eta bertso saioetara joaten hasi nintzen gerora. Gainera, Bertsozale Elkarteko bazkide egin nintzen, eta 2014 inguruan, jakin nuen gai jartzaileen inguruko ikastaro bat egiteko aukera zegoela Durangon [Bizkaia]. Joan egin nintzen, eta

denbora gutxira, epaileen beste ikastaro bat antolatu zuten; han ere parte hartu nuen. Epailletza ikastaroaren bueltan, Gipuzkoako elkartearen epaile lanetarako jendea behar zutenez, deialdi bat egin zuten, eta animatu egin nintzen, horrelaxe tokatu zelako eta behar zelako. Ordutik entrenamenduak, saioak, bilerak... egin ditugu, eta etengabe ikasten ari naiz.

Nola prestatu zara?

Villabonan [Gipuzkoa] elkartzen

gara epaileok, Mintzolako egoiztan, bilerak egiteko. Baina lantaldean egiten ditugun saioez gain, bakarrik egin beharreko lan bat ere badago. Etxean jarduten dut, bertso saioak ikusi eta puntuaketak lantzen. Gainera, Bertsozale Elkartek Interneteko plataforma bat jarri digu, epaileok entrena gaitzen, eta gure prestakuntzan baliabide osagarria da. Eskatzen du lanketa bat; izan ere, denok hainbat lan esparrutan ari gara lanean, eta afizio bat dugu epailletza.

Zer motatako saioak epailletzen dituzu?

Gipuzkoako Bertsozale Elkartek, bertso eskolek, hainbat herri mugimenduk... antolatzen dituztenak. 2015ean, eskolarteko txapelketetako epaile lanak egiten hasi nintzen, eta hortik egin nuen salto Gipuzkoako txapelketara. Harrezkero, eskolarteko txapelketetan urtero parte hartu dut, eta beste hainbat sariketan ere bai: Lizardi sariketan, Erriarraitz txapelketan, Herriarteko taldekako txapelketan, Plazatik Gaztetxera sariketan... Hainbat saio egiten dira, eta denean behar gaituzte. Gainera, Bertsozale Elkarteko epaileok, beste lurraldeetako ere laguntzen diegu, beharraren arabera.

Zenbat zarete, guztira?

Gipuzkoan, hemezortzi bat izango gara, eta Euskal Herri osoan, berrogeitaka.

Zer eskatzen du epaile lanak?

Urtean zehar, Gipuzkoako herri batera edo bestera joan behar izaten dut asteburuan, baina txapelketa garaian, agian, larunbat eta igande guztiak eskaini behar dizkiozu epailletzari. Neure lanaz eta etxeko egunerokoaz aparte, beste lantxo bat gehiago da, baina familiaren laguntzarekin, egiten dut. Ordur kanpoko lana da, baina gustura egiten dut, afizio handia dudalako. Lantaldean giro ederra dugu, eta horrek laguntzen du jardun horretan. Euskal kulturgintzan jartzen ari garen aletxo bat da, gustatzen zaigun eremu batean.

Ba al duzu bertsolari faboritrik?

Bai, baditugu, noski. Bertso saio batean entzuteko, batzuk gustukoago ditugu besteak baino. Bertsozale gustatzen zaizu, kantaera, arrazoi eta argudioen erabilera eta sakontasuna, gehiago transmititzen dizu... Epaile denok dauzkagu gustukuagoak egiten zaizkigunak; nik uste ezetz diotenek gezurra diotela. Baina txapelketa batean, eta orokorrean, epailletza lanean, burua hotz izan behar duzu, zu testuinguru hori, esamolde hori, epailletza baizoz. Bertsoa nola plazaratzen duen epailletza behar duzu. Eta bertsoa oso esparru handia da, ez da testua bakarrik.

Zer da, bada, kontuan izan behar dena?

Bertsoa plazaratzen den uneak zer nolako indarra eta balioa duen neurtu behar dugu: abiapuntu jakin batetik bukaerako emaitzera, bertso kantatura, eraman duen bidea. Zer esan duen, nola esan duen, aurrekoari erantzun dion edo ez, eman zaizkien elementuak erabili dituen, bizkortasuna, nola barneratzen duzun esaten duena, sinesgarri egiten zaizun edo ez, kantaera... Gauza asko dira. Noiz, non, nori eta zergatik esaten den oso kontuan harturik, zer eta nola esan den begiratuko du epailletza bidez. Buruko prozesadorean segundo gutxitan kontuan hartu beharko du hori guztia.

Nahiko lan konplexua da epaileona. Epailletzan sartu nintzenean, pentsatzen nuen formula magikoa emango zidatela. Badaude irizpide batzuk, noski, denok presente dauzkagunak eta puntuaketetan aplikatzen ditugunak, eta horiek ahalik eta zorrotzen jarraitu behar ditugu. Baina badago zati subjektibo handi bat ere, eta hori kudeatzen jakin behar da. Funtsean, hori entrenamenduen bidez lortzen da. Baina egia da batzuetan epaileon artean ere aldeak egoten direla bertsoak puntuatzerakoan. Izan ere, bertso bat momentuan epailletzen duzu, bost-hamar segundotan, eta zerotik hamarrera puntuatzen da bertso bakoitza. Azkenean, puntuaketa lantalde batean

egindako balorazioa da, epaile guztion puntuaketaren batez bestekoa.

Zenbat epaile egon ohi zarete?

Saioaren arabera. Eskolartekoe-tan eta sariketa gehienetan hiru, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren sailkapen fasean [Gipuzkoa Bertsotan] lau egon ohi gara, beste batzuetan bost izaten dira, txapelketa nagusian gehiago...

Kontzentrazio handia behar da, ezta?

Bai. Segundo gutxian epaitzen dugu bertso bat, eta haren puntuaketa idatzi orduko, beste bat hasita egoten da kantuan. Uste dut epailetzaren lanik handiena dela kontzentrazio puntu hori une oro bilatzea. Aurrekoa ahaztu eta zerotik hasi behar duzu bertso bakoitzean; horixe da gehien kostatzen zaiguna. Eta batez ere, kartzelako saioan. Guk lehenengo bertsolariari planteatzen zaion une eta testuinguru berean egon behar dugu, eta ez digu eragin behar aurrekoak zer kantatu duen, ezta gai berari kantatzen badio ere.

Ardura handia da zuena.

Bai, bada. Gainera, gure puntuaketak publikoak izaten dira, eta hein horretan, kritikak ere izaten dira. Baina badakizu hor zauden momentutik kritikak izango direla, eta horiek jasotzen ikasi behar duzu, horietatik ikasten. Gure beste kezka izaten da, puntuaketen batez bestekoa egiterakoan, ikustea zure puntuaketa ez dela beste epaileen bide beretsutik joan. Bakoitza ahalik eta lanik txukunena eta bidezkoena egiten

“bertsoa oso esparru handia da, ez da testua bakarrik”

“une oro kontzentratuta egotea da lanik zailena”



Aranguren Gipuzkoa Bertsotarako saio bat epaitzen, Asteasun.

saiatzen gara; epaile baten lana justutasun hori bilatzea da, eta epaileon arteko batez besteko horrek eramaten gaitu, intentzioz behintzat, emaitza zuzen horietara. Beti ez dugu asmatuko, bertsolariak asmatzen ez duen bezala. Baina egia da ardura handia dela, batez ere, sailkapen faseetan. Epaileen lana beti omen da esker txarrekoa; hala diote esamesek, Imanol Lazkano tartean, baina norbaitek egin egin behar.

Behin ere damutu al zara bertso bati puntuazio bat eman izanaz?

Ez dut esango ezetz. Azken finean, zu momentuan baloratzen ari zaren bertso hori, testuinguru eta momentu konkretu batean entzuten duzu. Eta hor zuri transmititzen dizuna edo gero etxean bakardadean eta ariketa isolatu bezala aztertzean pentsatzen duzuna batzuetan ez dira bat etortzen. Epaileon artean gorabehera gehien izan ditugun bertso saioetako puntuaketak aztertu egin ohi ditugu ondoren taldean, eta ondorio pila bat ateratzen ditugu hortik. Irizpideak berriz elkarbanatzeko balio izaten digute halako ariketek. Eta agian, zeuk epaitutako bertso bati beste puntuaketa bat ematen diozu halakoetan. Ez dakit damu den hitza, baina sentipen gazi-

gozo bat gelditu izan zaigula uste dut, orokorrean, noizbait, denoi.

Eman al dizkiozu inoiz hamar puntu bertso bati?

Hamarreko bertsorik entzutea ez zaidala tokatu esango nuke. Perfekzioarekin topo egitea bertsolaritzan ere ez da erraza. Bestalde, egia da zero gutxi ematen ditugula ere. Niretzat oholza gainean jarri eta presiopean ahalegina egin eta bertsoa bukatzeak berak badu meritua, nahiz eta trakets atera.

Hamarreko bertso batek zer ezaugarri izan behar ditu?

Belauniko jartzeko moduko bertso bat izan beharko luke. Zer ezaugarri dituen? Irizpideak bere osotasunean bete behar ditu; emandako elementuak eta gaia ondo uzartu bertsoan; biren arteko lana bada, bidelagunari jarraitu; koherentzia mantendu; sinesgarria izan; emozioak sortu... Sekulako klimaxa izan behar du. Bertso bat ez da perfektua zure bizipenengatik bihotza ukitu dizulako, gaiaren aurkezpenetik abiatu eta horri erantzun al dion da garrantzitsua.

Batek baino gehiagok kritikatu izan ditu txapelketak, lehaikortasuna sustatzen dutelako. Zer iritzi duzu zuk?

Nik txapelketak behar direla uste dut. Txapelketaren inguruan sortzen da mugimendua, eta batez

ere, Bertsolari Txapelketa Nagusian. Bertsozale ez direnak ere zailak hasten dira; txapelketak badu indar hori. Herriz herri beste-lako saio pila bat ere egiten dira, eta horiek pixka bat itzalean gelditzen dira zoritxarrez; jendea atzerakada ematen dio sarritan saio txiki horietara joateak, pertsonalizatuagoak direla uste dute. Txapelketa, berriz, jendea bertsolaritzara gerturatzeko era bat da.

Bertsolariak beraiek kritikatzeko dute txapelketa gehien, baina behin Andoni Egañari zera irakurri nion: mediku bat ikasten duenarengatik egiten dela mediku, eta bertsolaria txapelketak egiten duela bertsolari. Niretzako bertsolaria plazek egiten dute, eta norberak hautatzen du zein den bertsolari izate aitortza momentu hori. Baina txapelketak gizartean sortzen duen mugimendua izugarria da, euskal kulturgintzari ematen dion bultzada sekulakoa da. Isiltasun momentu horiek, jendearen errespetua bertsolaria egiten ari denarekiko, 14.000 ikus-entzuleko saioak... Non lortzen duzu begirunezko espazio hori? Bertsolariak hori ikusi egiten du, eta maitatua sentitzen da. Uste dut beharrezkoak direla txapelketak bertsolaritzak osasuntsu jarrai dezan; ezinbesteko hauspoa dira.*

Nork esan behar zidan niri...

Egi berdaderue hau re", azpeitiarrok esaten dugun bezalaxe. Hogei urtetik gora pasatu ditut EGAko azterketa dela eta haserre. Badira urte batzuk, ezta? Hala izan dira, bada, izan direnez. Berrogeita gutxi urterekin ikastera itzultzea erabaki nuenean hasi zen nire bizitzaren ez dakit zenbatgarren atala. Hasi, eta bukatu ere, bukatu nuen –inoiz atera ez ditudan emaitzekin, gainera– Donostian 08:00etatik 14:00etara egin nuen goi mailako zikloa. Egundoko esperientzia ederra izan zen adina bikoizten nien gazteekin ikastea eta horiek ikaskide izatea. Eta egundokoa diodanean, egundokoa izan zelako diot.

Bizi esperientzia aberasgarria eta asko kostatutako erabakia izan zen arren, bete-betean asmatu izanaren sentipena eta sinesmena dauzkat. Eta esker ona dut erabakia hartu nuenean nire ondoan eta babesean izan nituenekiko. Izan ere, amok badugu serietik eta ezinbestean daramagun "errudun" markako motxila bat soinean.

Ikasketak amaituta, ordezkapenak egiten nenbilela, Azpeitiko Euskaltegian lan egiten zuen lagun batekin kontuak berritzen ari nintzela, esan banion esan nion hogeitasek bazirela EGArekin haserretu nintzenetik. Hark zera esan zidan: "Nola? Ikasketetara itzuli eta EGA atera gabe jarraitzeko asmoa duzula?". Eta nik: "Ba bai –harro samar, baina hitz totala–". Esan nion azterketa gainditzeko intentzio gutxi nuela. Eta lagunak jarraian: "Baina nola? Egindako ahaleginarekin eta ikasteko ohitura berreskuratuta, mereziko ez du ba EGA ateratzek! Eta bla, bla bla... Ate asko zabalduko dizkizu... Eta bla, bla, bla... Ikusiko duzu... Bla, bla, bla...". Eta koxk! Ez dakit nola egin zuen, baina gaizki-



||||||| **olatz aguado** |||||

||| Gaia aurrez jarrita egoten bazen ere, edozeri buruz idazteko irrikaz egoten nintzen, ikasle gehienak ez bezala

gaizki ez zuen egingo ni bezelako kaskagor bat iritiz aldatzeko!

Azkenean, euskaltegira

Eta hara non ikusten dudana nire burua matrikula paperak betetzen Azpeitiko Euskaltegian. Nork esan behar zidan niri! Asteazken lau egunez eta egunean bi ordu eta erdiz hutsik egin gabe joan nintzen saioetara. Olatz izeneko irakaslea izan genuen taldekideok; azalpenak pasioz eta jakinduriaz emateaz gain, umore fina zuen eta lan eginarazten trebea zen.

Astearteak nituen egunik gogokoenak. Izan ere, asteartero idazlan bat eginarazten zigun irakasleak. Gaia aurrez jarrita egoten bazen ere, edozeri buruz idazteko irrikaz egoten nintzen, ikasle gehienak ez bezala. Testua osatzeko hitz kopurua genuen idatzi hau egiteko bezalaxe, baina ni, beti bezala, neurria hartu ezinik ibiltzen nintzen. A zer lanak ematen nizkion Olatzi, zientoka akats izaten baitziren nire testuetan.

Inperfekzioaren perfekzioaren sinesten duen horietako irakaslea da, ordeaz, Olatz, eta akatsak gorrit fin-fin zuzentzeaz gain, idazteko genuen zaletasuna txalotu eta estimatu egiten zuen. Bihotzez eskertzen diot hori. Izan ere, Azpeitiko Euskaltegian Olatzekin bizitakoak benetan merezi izan zuen, eta ez bereziki EGA gaitzuta izanagatik, gaitzuta idazteko nuen zaletasuna berreskuratzen lagundu zidalako baizik!

Hala ere, irakurtzen ari zaren idatzi hau zure begietara iritsi aurretik, arren zuzenketak egiteko eskatzen diedan Uztariako kideei, eskerrik asko. Eta nola ez.. eskerrik asko Euskaltegirako bidean jarri ninduen lagunari eta bertan irakasle izan nuen Olatzi, bereziki. Nork esan behar zidan niri!*



Zumandorra

E

lorrik izena aldatu nahi du. Ez zaio gustatzen. Alferrik da hari esatea elorria dela udaberrian loratzen lehenetakoa, pertsonen osasunarentzako –bihotzarentzako eta odol zirkulaziorako batez ere– ona dela, arantzak iltzeak bezain gogorak dauzkala, suari jaten emanez gero burdina ere urtzeko gauza dela. Alferrik aipatuko diozu Bitoriano Gandiagaren *Elorri* liburua, pertsonak elorria modukoak –gure arantza, gure oker, gure lore zuri eder– garena. Elorrik 9 urte ditu, eta ez dago poemetarako. Lagun denek *Elorrio* deitzen diotelako. Gehienek ez dute elorri arbolarik ezagutzen; eta, jakina, ez dakite elorri arra eta emea daudenik. Elorrik ere nahiago luke ez jakin. *Normala* litzateke bere inguruan. Eta berak *normala* izan nahi du, gauza guztien gainetik.

Jakinmina ere badu, baina. Sahats arra eta emea bereizteko lana jarri dio zaharrak, Kizkitzatik Ezkiorako ibilaldian. Ez du asmatu, baina ikasi du nolakoa den sahatsa, zertarako erabiltzen zen aitonen ume aroan –arkumeei, antxumeei eta feriara eramateko gainerako animaliei hankak zauririk gabe lotzeko, besteak beste–, badela dantza talde bat baino zerbait gehiago. Aspaldi ahantzitakoak berriz gogortzeko aitzakia eman dit niri, bide batez.

Abiada hartu duenez, gaitzak jotako pinu hutsune nabarretaz hasi da zaharra; hutsune hori betetzen hasi diren eukalipto sailletaz; pinuen aurreko gaztainadietaz; itsasontziak egiteko duela hainbat mende inguruotan eraitsitako pagoetat; eta pasatu berri dugun errebueltako hurritz adarrak hain garai eta modu traketsean moztu dituenaren mozdadeaz. “Aizu, bada aspaldi ikusi ez dudana arbola bat: zumandorra. Zuritu, eta otarrei kolore punttu bat emateko erabiltzen genuen”. Mailuki gorri-gorri bat ikusi du Elorrik eskuineko pendizean, eta bukatu dira ikasgaiak. Goseak gaude denok.

Etixeratzean

Ettxera bueltan, Elorrik telebista piztu du. Nik,



||||||| amagoia gurrutxaga |||

||| Gehienek ez dute elorri arbolarik ezagutzen; eta, jakina, ez dakite elorri arra eta emea daudenik



Handwritten signature or mark.

ordenagailua. Interneten hasi naiz zumandorren bila. Bitartean, Parisko Notre Dame katedraleko sabairako hagetarako arbolak aurkitzea ia ezinezkoa izango dela esaten ari da aditu bat telebistan: “Eraikinaren planoak egon badaude, eta oso zehatzak, baina ez daukagu duela zazpi-zortzi mendeko basorik, kalitate horretako materiala lortzeko; ezta orduko zurginen jakituriarik, material hori hain modu eraginkorrean lantzeko”. Antzeko kontuak entzunak ditugu Pasaiaiko Albaolan egiten ari diren San Juan baleontziaren erreplikaren inguruan.

Telesforo Aranzadiren hiztegi bat topatu dit Google-k. *Zumadorra*-tik *zimaldorra*-ra bidali nau. Eta hor: “*Arbusto no bien determinado ¿aligustre?, ¿laureola? ¿cornejo? ¿bonetero? Véase Zuandorra, Zumandorra = arbusto del que eran las varas con que azotaron a Jesús; véase también Judasa*”. Eta *Judasa*, Elosuan, *Cornejo*.

Frantsesek dirutza jarriko omen dute, sugarek elorri arantza bat bezala irentsi eta eraitsitako Notre Dameko dorrearen kontura beren *grandeur*-a berrindartzeko. Murumendiko Gure Damaren –eta gure natur-kultur ondarearen– basoak kiskaliko balira, ez dakit hainbeste galera eta berreskuratze premiarik sentituko genukeen. Planoak gordetzeko joerarik ez dugu erakutsi, behintzat, orain artean.

Eta Elorrik elorri izateko gogorik gabe segitzen du.✱

“Irakasleekin dugun harremana oso gertukoa da”

Lur Goenaga Urbiet (21 urte, Azkoitia) Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean (HUHEZI) ari da Heziketa Fisikoa ibilbideko Lehen Hezkuntza gradua ikasten. Gaur egun, hiru garren mailan dago Goenaga.

Zergatik aukeratu zenuen Lehen Hezkuntza Heziketa Fisikoa gradua?

Oso kirolzalea izan naiz betidanik, eta umeekin lan egitea ere atsegin dut. Horregatik, aukera paregabea iruditu zitzaidan, gradu horrek bi arloak uztartzen baititu.

Eta zergatik Mondragon Unibertsitatean?

Unibertsitatera iritsi baino urtebete lehenago, aukerak begiratzen hasi nintzen. Badut Mondragon Unibertsitatean ikasi duen hainbat lagun, baita gaur egun ber-

tan ikasten ari direnak ere. Orduan, beraiekin hitz egitea erabaki nuen, eta asko gustatu zitzaidan haiek kontatu zidatena.

Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Orain arteko esperientzia oso positiboa izan da. Irakasleekin edukitako harremana uste nuena baino gertukoa goa izan da, eta gelan oso giro ona eta jatorra daukagu.

Nola definituko zenuke HUHEZIn jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Orain arte bizi izan dugun ikaskuntza alde batera utzi eta ikaskuntza berritzailearen aldeko apustua egiten dela iruditzen zait. Hasiera batean arraroa egin zitzaidan, baina denborak aurrera egin ahala, ondo moldatu naiz ikasteko metodologia horretara. Adibidez, talde lanean oinarri-



Lur Goenaga Mondragon Unibertsitateko ikaslea.

tzen gara lan egiteko orduan, aurkezpen asko egiten ditugu eta azterketek garrantzi gutxiago dute.

Unibertsitateari dagokionez, zer da gehien gustatzen zaiuzuna? Eta ba al da zerbait hobetzeko?

Unibertsitateko kirol zerbitzua azpimarratuko nuke. Ni neu kirolzalea izanik, erraztasun handiak ditugu edozein kirol egiteko eta ikusteko. Zerbitzu bikainak eskaintzen ditu unibertsitateak. Gainera, urtean zehar, kirol desberdinetako lehiaketak antolatzen dituzte, eta giro bikaina sortzen da horietan.

Bestalde, ordea, unibertsitateko euskararen erabilera nahiko urria dela esango nuke, bertan gaztelaniaz hitz egiteko joera baitago. Uste dut, Mondragon Unibertsitateak euskararen aldeko apustua egiten duenez, gehiago landu beharko genukeela euskararen gaia.

Etorkizunera begira, zer asmo dituzu?

Nire lehenengo asmoa ondo prestatutako irakaslea izatea da. Ondoren, nahiz eta ez dagoen erraza, nire asmoa izango da irakaskuntzaren munduan ahalik eta lasterren murgiltzea.

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

Euskaraz egiteko deia

Aurten ere, errenta aitortzena euskaraz egiteko kanpaina jarri du abian Uemak. Iaz, 7.736 lagunek egin zuten aitortzena herrian, eta horietatik 3.210ek euskaraz gauzatu zuten; 2017an baino gehiagok.  Ihintza Elustondo

2018ko errenta eta ondarea aitortzeko kanpaina hasi du dagoeneko Gipuzkoako Foru Ogasunak, eta Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (Uema) eta udalerrri euskaldunetako udalek errenta aitortzena euskaraz egiteko deia egin dute; tartean Azpeitiko Udalak. Administrazio publikoan "euskaraz dagoen lekua" izan dezan hasi dute kanpaina; izan ere, Uemak eta udalek herritarrek administrazioarekin dituzten harremanak euskarazkoak izatea bultzatu nahi dute.

Euskararen normalizaziorako bidean udalerrri euskaldunak egiten ari diren lanaren beste urrats bat da martxan jarri duten kanpaina. Dena den, pausoa "sendoa" izan dadin, herritarren babesa eta parte-hartzea beharrezkoak dira, mankomunitatearen arabera.

Errenta aitortzena egiteko hainbat modu daude, eta lurralde bakoitzeko Foru Ogasunak webguneak, telefonoak eta gainerakoak jarri ditu eskura. Kanpainaren helburua da horietan euskararen aldeko hautua egitea; izan ere, herritarrek aukera dezakete zein hizkuntzatan egin nahi duten.

Salbuespenen bat kenduta, azken urteetan gora egin du errenta aitortzena euskaraz egin duten herritarren kopuruak. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren datuen arabera, 2018an 7.736 lagunek egin zuten errenta aitortzena Azpeitian, eta horietatik 3.210ek (%41,5) egin zuten euskaraz. 2017ko datuekin alderatuta, gorakada nabarmena da; izan ere, orain dela bi urte 2.013 lagunek egin zuten errenta aitortzena euskaraz Azpeitian, hau da, aitortzena egin zuten herritarren %39,67k.*




Oier Etxeberría.

ESANA DAGO

III "Txapelketak aurrez presio pixka bat sortzen duela? Bai, baina ez da hainbestearainokoa"

III "Helburu gisa txapelketak eskatzen duen horretara iristeko gai izatea jarri dut. Ez dut txapelketako saiora arratsalde pasa joaterik nahi"

OIER ETXEBERRIA
bertsolaria

III "Gipuzkoan, derrigorrezkoa da txakurrari txipa jartzea, autoa matrikulatzea derrigorrezkoa den bezalaxe"

BELEN SAGASTUME
albaitaria




Politika

Ez naiz politikoa baina politikak erakartzen nau. Politika, niretzat, eguneroko jarduna da; horixe dena edo horixe bakarrik. Politikoki neure buruari etiketa bat jartzekotan, ez dakit zer erantzugo nukeen. Eskuineko, ezkertiar, zentroko edo erdibideko; etiketa horiekin ez naiz batera eroso sentitzen. Futbolean nire bihotza zulatu zuen geziaren jabearekin muturtuta banago, atera kontuak alderdi politikoekin nola nagoen... Badakit badakizula kontraesanez beteriko gizakia naizela, talde lanean sinesten dut baina taldeetan ez, gizabanakoe-tan dut fedea. Harrapazan/k!

IKUSTEKOA!



▲ZERRALDEKO AMA BIRJINAREN INGURUA, ITXURALDATUTA.

Urrestillako Zerraldeko ama birjinaren inguruak itxura berria du. Zerraldeko pasealekuan, Arantzazuko Ama Birjinaren irudia dago aspalditik, propio egindako harrizko estalpearen barruan. Herritarrek jarri zuten irudi hori, garai batean pasealekuaren azpi aldeko paretan egon zen beste irudi bat ordezkatzeko. Orain, beste herritar bat izan da, bere kabuz, ama birjinaren estalpearen buelta txukundu eta harriz eta abarrez apaindu duena. 📧📧Mailo Oiarzabal✳



txetxu urbieta

makila emakume baten esku utziko duena. Esaten hasita, bazen garaia.

Atxuiatarron tribukoak urbean egin duen lanaz bakoitzak bere iritzia izango du. Esango nuke ez duela aparteko hondamendirik eragin, herriak bere lekuan jarraitzen duela. Erabaki onak hartuko zituen, okerrak ere bai. Hori zuek epaitu. Nik, emandako tratuaz, esker ona berterik ez dut. Atea jo diodan bakoitzean, atea irekita egon da. Hori bai, jakin beza Enekok, aginte makila uzten duenean Atxuiako tribuko jauna Atxuian sortu zena dela... eta ministro bila ez daukala urrutira joan beharrik.✳

APIRILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



Errepideak, egoera txarrean

AZPIEGITURAK. Herriko zenbait kaletako errepideek mantentze eta konpon-tze lan handiak behar dituzte. Errepidean zuloak, galtzadetako marren pintura ego-
era txarrean... Guk ibilgailuak egoera onean izan behar ditugu derrigorrez; errepideen egoerak, ordea, berdin du askotan. Egoera txar horren ondorioz, gurpila zulo horietako batean hautsi eta kexatutakoan, eskuak garbitzen dituzte.



ieltxu caballero



Interneta, zentzuz

GIZARTEA. Egun, ia ume guztiek dute mugikorra, eta horrekin batera, Internetarako giltza, bere alde onekin eta txarrekin. Arrisku horien inguruan umeekin kontzientziazio lan ugari egiten dela uste dut. Gailuak eta Internet zentzuz erabiltzen erakutsi behar diegu, etxean nahiz eskolan.



Zoro zoragarrien multzo ederra

EUSKARA. Aurtengo Korrikaren 21. edizioa ordu egoki batean igaro zen gure herritik. Jende ugari bertaratu zen euskararen aldeko lasterketara; ikusle asko eta korrikan askoz gehiago. Ikastetxeetako ikasleekin batera, marea galanta egin zuten parte-hartzaile guztiek. Horien artean

ziren jaioterri desberdinetako herritarrek, adin askotakoak, aitona-amonak bilobekin... Zoro zoragarri horiek multzo ederra osatu zuten. Denek zuten helburu bera buruan: gure altxorra den euskara maitearen erabilerara sustatzea.✘

INKESTA

zein auzotako
festak dituzu
gustukoen?

I. Elustondo/A. Olaizola

ANA ODRIOZOLA

54 urte



"Gaztea nintzela,
Urrestillako festak
nituen gustukoen,
eta beti joaten

nintzen. Landetakoak gustuko
nituen, baina indarra galdu dute
horiek. Orain ja ez naiz asko
ibiltzen festa giroan, baina
Sanjuandegikoak mundialak
izaten dira".

LAIDA ARAMENDI

13 urte



"Festak atsegin
ditut, batez ere,
Sanjuandegikoak
gustatzen zaizkit.

Gauza asko antolatzen dituzte;
iaz, adibidez, auzo bazkarira
joan nintzen, eta primeran
pasatu nuen".

LUXIANO ODRIOZOLA

76 urte



"Urrestildarra
naiz, eta hango
jaiak ikaragarri
gustatzen zaizkit.

Lehen emaztearekin joaten
nintzen festara, baina hura hil
zen, eta orain, bilobekin joaten
naiz".

MALEN BASTIDA

14 urte



"Sanjuandegiko
festak dira nire
faboritoak. Iaz
barraketan

ibili nintzen. Laster dira
Sanjuandegiko festak, eta
gogotsu nago, egia esan.
Aurten ere joango naiz".

Nora doa hitanoa

Otsailean Azpeitira etorri aurretik, Maider lagun zestoarrak jakinarazi zidan Zestoa hitano ikastaroa egongo zela eta nik ere baneukala han parte hartzea. Pozik eman nuen izena, eta oso ondo pasatu nuen ikastaroan. Gogoan dut orain dela 30 bat urte, Tokion bertan euskaraz ikasten hasi nintzen, gure irakasle zenak (Suzuko Tamurak, hain zuzen ere) esan ohi zuena: "Gu bezalako kanpotarrek euskaldunekin hitanoz aritzea portaera ausartegia denez, ez dugu hitanoz egin behar." Gauzak horrela, aditz forma batzuk ezagutu arren, ez nuen ikasi hitanoz hitz egiten. Baina ikastaroa zela eta, hitanoz ondo ikasteko gogo piztu zitzaidan, eta klasetik kanpo ere saiatzen hasi nintzen hitanoz egiten. Lagun batzuek lagundu zidaten horretan; adibidez, Laratzeko Olatzek animatu ninduen hitanoz egitera, baina ez geundenez batere ohituta gure artean noka egitera, askotan esaten genion elkarri: "Aizan! Antzerkia egiten ari garela ematen din!", eta barrez

lehertzen ginen. Beste lagun batzuk ere hasten ziztaizkidan noka egiten, eta ondo pasatzen nuen, nahiz eta oraindik ondo ez jakin. Zergatik izan zen hain dibertigarria? Ba, ikusten nuelako gero eta hobeto ari nintzela, eta hobekuntza beti da pozgarria. Bestalde, banekien hitanoz hitz egiteko ohitura desagertzen ari dela Euskal Herrian orokorrean, batez ere noka hiltorian dagoela: batetik, neskei noka egiteari erabat utzirik, zuka egiten zaielako haiei; bestetik, neskei nokaren partez toka egiten zaielako (belanunaldi bateko zenbait hiltunek, behintzat). Beste gauza bat ere azpimarratu nahiko nuke: mutilek neskei ez badiete noka egiten, hitanoz hitz egitera animatuta dauden nesken artean soilik geratuko litzaiteke noka. Hori ere bizirautea denez, erabat galtzea ere hobe da, beharbada. Euskararen ezaugarriak azpimarragarrienetako bat den hitanoak nondik norako bidea hartuko ote du? Zeinen esku egon daiteke haren etorkizuna?*



hiromi yoshida

galDETZEN hasita, berretsiko al du
Azpeitiak gipuzkoako herriarteko pilota
txapelketako txapela? Uztarria

Musua

Gogoko dut begiak behatzea, isiltasunean asko hitz egiten dute. Gogoko dut bere ustez barruko korapiloak gordetzen dabilen horri, begietara begiratu eta sentimenduak nahastea. Bereziak gure begi eta begiradak! Baina zergatik ixten ditugu begiak amets egitean, desioak eskatzean, besarkatzean edo negar egitean? Eta zergatik ixten ditugu begiak musu ematean? Bizitzaren plazera ikusi ordez, sentitu egiten delako!

Apirilaren 13an izan zen Musuaren Nazioarteko Eguna. Itxi begiak eta imajina ezazu eman edo jaso nahiko zenukeen musua -aitonarena, amarena... lepoan, masailean, ezpainetan... kolean, ohean, itsasertzean...-. Nahi ote zenuke muin hori 50 ordu baino luzeagoa izatea? Badira bai, World Record Guinness dela-eta orduak eta orduak ezpainak elkarri lotuta igaro dituzten bikoteak. Thailandian antolatuta zuten lehendabiziko aldiz musurik luzeena emateko lehiaketa; 46 ordukoa izan zen garaile.


Urtebete beranduago, bikote berak, munduko errekorra hautsi zuen 58 orduko muina eman ostean.

Musu ematea osasungarria dela dio zientziak. Ezpain jokoan oxitoxina, dopamina, endorfina, epinefrina, serotonina, testosterona eta beste zenbait hormona askatzen dira; horiek gudan maitasuna, plazera, motibazioa zein sexurako grina sortzen dute. Baina posible ote 58 orduz gozamina eta desioa sentitzea? Imajinatze hutsak hotzikara sortzen dit. Hotza eta sentimendurik gabekoa iruditzen zait erlojuari so emaniko musu hori. Nire gertuko bati entzun nion behin: "Ez al da, bada, muxurik ederrena denbora gelditzen duena?". Erantzunik behar ez duen galdera!

Erlojuak ezkutatu eta bizitza sentituz goza dezagula! Eta gure osasunaren alde, izan dezagula begiak itxita ezpainekin jolasteko aukera. Apirilean emaniko muxu harengatik, topa!*



irati aranguren



Ahopean

Zabaldu ahoa iruntzi dana", zioen kan-
tuak, eta aspaldian politikarien ahoak oso za-
balik daude. Kanpainan gaude, lagunok. Es-
painiako hauteskunde orokorren harira ari da
gertatzen lehenengoa eta bertako protago-
nistei nahiez eta asmoez bete zaizkie ahoak.
Aho bete hortz utzi nauten titularrak ere es-
kaini ditu hainbat izendaezinek.

Gauza kuriosoa gertatu zait egunotan es-
painiar politikaren gorabeherak jarraitzen
nenbilela: batzuen argelkeriak irakurri ditu-
dan heinean, besteen tentelkeriak ez zaizkit
hain ikaragarriak irudit. Ohartu naizenerako,

espero ez duzen baten mitinaren irudien au-
rrean, buruarekin baieztatuz nabil sofán.

Bai. Exajeratzen ari naiz, baina uste dut ho-
rrelakoetan perspektiba galtzen dela. Onar-
tezinak zaizkigun erpinak gero eta urrutiago
gertatu, onar genezakeen errealtatea gero
eta zabalagoa izaten zaigu. Ahogaitoen ira-
gazkia handitzen dugu eta, gure egoeraren
diagnostikoa konparazioetan oinarrituz, uste
ez genituenak ere onesten ditugu. Agian ho-
rregatik, gaur egun, ez ditugu gure lan bal-
dintzak aldarrikatzen, aldamenekoaren lan-
gabezia edo lan egoera prekarioarekin alde-

ratuta, ez gaudelako hain oker. Ez dugu eus-
kararen aldeko esfortzurik egiten, beste he-
rrietan bizi duten egoerarekin konparatuta,
gurea oasi pribilegiatu bat da eta. Ez ditugu
gure eskubideak borrokatzen, gure aurreko-
ek bizi izan zuten egoera entzunda ez baikau-
de hain gaizki. Pixkanaka, onartezinak irudi-
tzen zitzaizkigun egoerak naturalizat hartzen
goaz. Mobilizatzeari utzi diogu eta minaren
atalasea handitu da.

P.D. Ahopean kontatzen dizuet hau, Maia-
tzaren 1a familiako bazkaria egiteko aprobe-
txatuko dugu eta. Aho-mihiz nabil ni ere.✱



|||||||felipe murillo|||

Erotikan Plax!

||||haizea egiguren-edurne mendizabal (Arremanitzeko kideak)|||



Eli Urrestilla lorezainari ego-
kitu zaio hilabete honetako galde-
rei erantzutea.

**Noiz hasi zinen lorezain la-
netan?**

Orain dela 26 urte.

**Zer behar da lorezain ona iza-
teko?**

Mundu hau gustuko izateak beti
laguntzen du. Loreak ezagutzea
eta bakoitzaren erritmoa errespe-
tatzen jakitea ezinbestekoa da.

**Erotika munduan ere aplika
ditzakegu aldagai horiek?**

Besteren bat gehituko?
Kar, kar! Guztiz. Zerbait gehitzeko-
tan, norbere buruarekin eta beste-
arekin konfiantza izatea.

**Zure bilakaera erotikoa lore
ezberdinen bidez irudikatu-
ko bazenu, zein lore eta zer
ordenatan izango lirateke?**

Kaktusa, jazmina eta lirioak. Bila-
kaeraren ordenari dagokionez, be-
rriz, bakoitzak pentsa dezala nahi
duena!

**Zure bizitzaren lorategia ze-
rekin ureztatzen saiatzen
zara ederra izan dadin?**

Umerez.

||||ELI URRESTILLA|||

Jaio. 47 urte.
Herria. Azpeitia.
Bizitokia. Azpeitia.
Lanbidea. Lorezaina.



Lorez lore ibiltzea gustuko?

Lore on bat aukeratzea bera, ez al
da nahikoa?

**Elik maitasun kontuetan
arantza asko utzi izan al
ditu?**

Bidean bakar batzuk.

**Udaberriak zer esaten dizu
zuri?**

Odola berotzen den garaia da, na-

tura bera ere pil-pilean dago sasoi
honetan.

**Berreskuratu nahiko zenu-
keen pertsona bati zer lore
oparituko zenioke?**

Alegria de la casa bat, lore zurie-
kin.

**Nola abonatzaren da sedukzio-
aren lurra?**

Autentikoa eta naturala izanda.

**Bihurrikeriak egiteko lora-
tegi bat?**

Gogoa badago, edozein lorategi.
Hori bai, txakur kakarik ez egotea
komeni!

**Landare bat izatekotan, zein
izango zinateke?**

Pago gorri bat.

Lore baten usaina?

Krabelinarena.✱

||||Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza:
Sindikatu Zaharra, 2. solairua
www.azpeitikoudala.eus/sexu 688897920
Hitzorduak, hilabetea: hilaren 8an
(16:00-19:00) eta 18an (10:00-13:00).|||

Udal agintaldiko parentesiak

Enekoitz Esnaola 'Berria' egunkariko kazetariak analisia egin du datorren maiatzaren 26ko udal hauteskundeetan atarian.

M

ikel Biain (EH Bildu) Oñatiko alkateak *Berria*n kontatu du orain dela zortzi urteko udal hauteskundeetako gauean EAJko Uri Buru Batzarreko kide batek esan zuela "parentesi bat" izango zela Bilduren agintaldia han, jendea konturatuko zelakoan EAJren beharra izango zela berriro. EAJk orduko hartan galdu zituen Oñatin lehen aldiz udal bozak. Bildu garaile, gehien-go osoarekin, eta alkatetzara. Parentesia luzatu egin zen duela lau urte: EH Bildu nagusi, gehien-go osoarekin, eta EAJ oposizioa atzera berriz ere. Igualtsua da Azpeitiko argazkia: EAJ 2011n geratu zen aurreneko aldiz udal hauteskundeak irabazteke, eta herriko jeltzale ezagun batzuen artean entzun zen parentesi bat izango zela agintaldia. Ordea, hemen ere luzatu egin zen parentesia: 2015ean irabazle EH Bildu, gehien-go osoarekin.

Testuinguru politiko nazional berezian eman zen 2011n Azpeitiko aldaketa historikoa ere: bazetorren ETaren jarduera armatuaren bukaera, eta, estreinakoz, ezker abertzalea —independente gisa aurkeztu eta legez kanporatzea gaindituz— eta EA koali-



||| Enekoitz Esnaola
(‘Berria’-ko kazetaria)

zioan joan ziren: Bildun. Honen aldeko boto uholdea gertatu zen; batik bat, Gipuzkoan. Azpeitian udal hauteskundeetan, 4.333 boto. EAJk, 2.219. Handiegia zen diferentzia, hala ere.

Azpeitiko aldaketa hura ezin da mugatu orduko testuingurura. Bazituen beste arrazoi eta azalpen batzuk, eta horietako bat 2007an gertatutakoa zen: EAJk irabazi zituen berriz ere udal hauteskundeak, baina ez zuen gehien-go osoarik eta aliatuak lortu, eta garai hartako *Azpeitiko EH Bilduko indarrek* bat eginda alkatetza eskuratu zuten, ekainean: ANV, EAJ eta Aralarrek. Udaletik beste Azpeitia bat marrazten hasi nahi izan zuten, herri-tarrekiko eta eragileekiko zabalatasun eta gertutasun handiagoa erakutsiz. Urte eta erdi bat eduki zuten horretarako: ETak zapuztu zuen

saioa, 2008ko abenduan Inaxio Uria hilda. EAJ alkatetzara berriro; baina udal gobernu-rako aliatuak gabe, eta, nolabait, oposizioetik agintzen segitu zuten ANV, EAJ eta Aralarrek. Testuingurua testuinguru, gertatu zena gertatu zen hurrengo udal hauteskundeetan.

Dena dela, 2007ko udal aldaketak ere bauluke azalpenik, eta da Azpeitian herri mugimendu pluralek 1990eko hamarkada erdialdetik hasitako ibilbidea. Ere askotan hegemoniko bilakatzen hasi ziren balio sozial eta kultural batzuk. Alderdi politikoek ez baituzte kontuan hartzen joera eta mugimendu sozial esanguratsuak, euren baitan iteko arriskua daukate, eta nahi izaten dutena da herri horrek alderdiaren beraren antza izatea. Akatsa; are gehiago herri mailan. Botere instituzionalaren galera lekarke. 2007ko Azpeitia jadanik ez zen, demagun, 1980ko hamarkadakoa; koloretsuagoa zen. 2007ko hauteskundeetako emaitzek ahalbideetzen zuten udal aldaketa, eta ezker abertzale ofizialak, EAJ eta Aralarrek pausoa eman zuten. Herria ez zen asaldatu, berehala ego-

kitu zen egoera instituzional berrira. Herriaren antz handiagoa zeukan udala al zen?

Duela lau urte gehiengo osoa berretsi egin zuen EH Bilduk. Baina diferentzia asko murriztu zen: 3.760 boto hark, 2.984 EAJk; aldea, beraz, 2.114tik 776ra. Hamar hautetsi EH Bilduk, zazpi EAJk –honek 28 boto gehiago lortu izan balitu, 9-8 geratuko zen udala—. Parte hartzea 6,3 puntu jaitsi zen –649 bototan—, eta EH Bilduk abstentzioa pairatu zuen, 573 boto galduta. Testuinguru nazionala desberdina zen, ezker abertzalea blokeatuta zegoen gatazkaren ondorioen konponbidean eta diseinu politikoaren garapenean, eta Gipuzkoako zaborren gatazkak ere eragin zion koalizioari orokorrean. Azpeitiko EH Bilduk udal bozetan 2,4 puntu galdu zituen eta Gipuzkoakoak forukoetan 6,1. Zerbaiten seinale?

Igoera handia izan zuen EAJk herrian 2015ean: 765 botokoa, 13,8 puntukoa. Seguruenera, haren zakuan sartu zen Hamaikabat-ek 2011n jasotako 483 botoen –%6,2, zinegotzi bat— zatirik handiena. Hein txikiagoan, kontuan hartu beharko litzateke PSE-EE eta PP 108 boto jaitsi zirela, eta, handik ere, ezker abertzalea paretik kentzearen, jasoko zuela zerbait. Gipuzkoan EAJk, koalizioan aurkeztu gabe, herrialdean 1983tik aurrerako foru emaitza onenak atera zituen orduan, baina Azpeitiko EAJ udalekoetan ez zen 3.000 botori iritsi, eta EH Bilduk ia 800eko aldea atera zion. Momentuko giro politiko orokor bereziagatik parte hartzea ez denean igo izan, Azpeitian %65-68koa izan da udal hauteskundeetan, eta, horrela, 3.000 bototik behera nekez irabazi ahal da bi indar politikoaren arteko polarizazioa dagoen tokian.

Badago beste datu bat: herrian EAJk duela hogeitau urte arte udaleko hauteskundeetan Eusko Legebiltzarrerako azkenekoetan baino boto gehiago biltzen zituen, baina EAJ-EA koalizio garaiaren ondoren, 2009tik aurrera, gutxiago; eta, erreferentzia modura erabili nahi bada, Azpeitian 2016an EAEko bozetan 3.075 boto jaso zituen. EH Bilduk 2015eko udal bozetan babes handiagoa jaso zuen EAEko 2012koetan baino, eta EAEko 2016koetan 3.192 boto izan zituen.

2011tik: 9 EH Bilduk, eta 2 EAJk

EH Bildun orain ez da Eneko Etxeberria izango alkategaia, eta EAJk ere ematen dio horri garrantzia. Alkategaia beti du eragina boto emaleen artean, eta, Etxeberriari buruzko iritzirik publikoa, oro har, ona da. Hura 2011n lehen aldiz aurkeztu zenetik alkategai



||| Alderdi batek ez baditu kontuan hartzen joera sozial esanguratsuak, nahi duena da herriak bere antza izatea. Akatsa; areago herri mailan

||| Garbi dagoena da: hurrengo alkatea, lehen aldiz emakumezkoa. Azpeitiak aldatzen segitzen du

—2015ean berriro—, boz haiek barne guztira 11 hitzordu elektoral izan dira, bost klaseta-koak: Azpeitian (EH) Bildu-Amaiur bederatzi-tan izan da garaile, eta EAJ, bitan. 2011ko hiru hitzorduetan —udal, foru eta Espainiako bozak— eta 2015eko herrikoetan oso erraz

nagusitu ostean, EH Bilduk beste bost garai-penetan batez beste 263 botoko diferentzia atera zuen; 80-451 boto arteko marjinarekin. Esan ahal da kasu horiez: justu antzean, baina irabazi; edota: irabazi, baina justu antzean. EAJren bi garaipenak, estatuko azken bi hauteskundeetan izan dira, eta, batez beste aldea, 190ekoa; 2016an 256 botokoa, pasa den apirilaren 28an 124koa. Hauteskunde motak mota, Azpeitian EAJk irabazi ditu azkeneko hiruretatik bi. Eta azkeneko hauetan lortu du (EH) Bildu dagoenetik boto kopururik handiena (3.378; %72,6ko parte hartzea), gaudituz 2012an Iñigo Urkullu Jaurlaritzako lehendakari zara iritsi zen bozetakoa (3.326; %70,2ko parte hartzea).

Horiek datuak eta azterketak. Maiatzaren 26an parentesia luzatuko den, ikusiko.

Gaur-gaurkoz, garbi dagoena da: hurrengo alkatea, lehen aldiz emakumezkoa. Azpeitiak aldatzen segitzen du.✱

ko taldeak anitza izan behar zuela. Helburu nagusia izan da azpeitiar guztiak ordezkatzeko dituen taldea eratzea. Azpeitiaren ordezkaritza ahalik eta osoena eratu dugu, eta horrek aukerak ematen dizkigu gure politikak ahalik eta zabalena izan daitezen eta ahalik eta azpeitiar gehienegana iritsi gaitezten.

Koalizioak zortzi urte daramatza Udal Gobernuan, gehiengo osoz. Abantaila izan al da hori hautagai aurkezterakoan?

Bilduk, eta EH Bilduk gero, zortzi urte daramatza gobernatzen, eta emaitza oso onak izan ditu. Gainera, *Zugandik hasita, herria egiten* galdeketaekin ikusi dugu Udal Gobernuaren lana ontzat edo oso ontzat eman dutela herritarren %76k. Horrek laguntzen du pausoa ematen, egia esan. Izan ere, EH Bilduk egindako politika jakinekin ados agertu da jendea, eta hori jakitea abiapuntu garrantzitsua da.

Zer balorazio egiten duzu EH Bilduk Udalean zortzi urteotan egin duen lanaz?

Oso ona. Elkarbizitzaren eremuan eman diren pausoak izugarri garrantzitsuak izan dira, batez ere, politika kanpotik bizi izan dugunontzat eta beste garai batzuk bizi izan ditugunontzat. Adibidez, asko gustatu zitzaidan herriko plaza oinezko bilakatzeko proiektua. Herriarrak bertan elkartzeko dira duten pentsaera dutela ere, eta esan daiteke plaza nukleo bilakatu dela. Azpeitia inor baztertzeko ez den herri bilakatu da; herri inklusiboa, bizia eta zabala da. Eroso bizi zeko herri bilakatu da Azpeitia. Bake soziala sumatzen dut.

Urteotan martxan jarritako politikekin jarraitu nahi duzuela esana duzu.

Bai, hala da. Galdeketa egin genituen herri programa osatzeko eta gure lan ildoak zehazteko. Prozesu horretan herritarrek Udalaren kudeaketa nola baloratu duten ikusita, argi dago bide horretan jarraitu behar dugula. Orain arteko politikekin jarraituko dugu, eta eralda-

ketan salto gehiago egin badaitezke, aurrera egingo dugu. Gainera, herritarrek lehentasunak zehaztu dizkigute: ekonomia eta enplegua dira kezka nagusiak, baita gizarte beharrei erantzutea eta etxebizitza arloa ere.

Ekonomiaren eta enpleguaren arloetan zertan sakonduko duzue?

Langabezia tasa %17tik %8ra jaitsi da azken urteetan. Beraz, eskualdeko eta lurraldeko langabezia tasen azpitik gaude Azpeitian. Dena den, sortu den enpleguaren kalitateak kezkatzen gaitu, batez ere, gazteen lan baldintzak ez dire-

lako onak. Ahalik eta esku-hartze handiena egin nahi dugu lan baldintzak hobetzeko, baina horretarako eskumenei dagokionez, eskuak nahiko lotuta ditu Udalak. Hala ere, zuzenean ez bada, zeharka hainbat neurri hartu ahal izango dira. Orain dela bi agintaldi, krisi garai larri hura izan zenean, Udalak Sustapen Ekonomikorako laguntzak jarri zituen martxan, eta ordutik, arlo ugartara bideratzen dute diru sail hori. Egoera ekonomikoa hobea da orain, eta aztertu beharko dugu non eragin dezakegun. Ekonomia herriartzea ere nahi dugu. Nolabait, hartu dira

zenbait neurri familien ekonomian eragiteko, eta horretan jarraituko dugu. Izan ere, ulertzen dugu familiarren ekonomia hobetzen bada, herriarena ere hobetu egiten dela. Funtsean, ekonomia sozialaren aldeko apustua egingo dugu, ekonomia errealean eragiteko. Ikuspuntu estrategikotik, herri honen motorra industria denez, lur industrialen bereganatzean sakondu nahi dugu. Izan ere, Landetako eremuan lur dezente esku pribatuetan daude eta pabilioi asko hutsik. Plan berezi bat egingo dugu zer egin daitekeen ikusteko.

Gizarte beharrei erantzutea ere erdigunean jarri duzue. Zer neurri hartuko dituzue?

Udalak dirulaguntza sistema zabaldua dauka gaur egun: 19 milioi euroko aurrekontua du erakundeak, eta bi milioi euro Gizarte Zerbitzuetara bideratzen ditu. Adin txiki-koentzat beka sistemak dauzka martxan, hezkuntza sistema bermatzeko eta eskolaz kanpoko ekintzetarako. Horrez gain, hain ezagun egin den 65 urtetik gorako pentsiodunei 1.080 eurora iristeko dirulaguntza ere badu. Bestalde, udalak martxan du arazoak dituzten norbanakoei eta familiei laguntzeko esku-hartze zerbitzua.

Etxebizitzaren arloa ere puntu garrantzitsua da, eta beharren azterketa egin da dagoeneko. Esklabak-lturtzulo eremuan bi proiektu ditu erakundeak: Esklabetan eskainiko diren alokairuko etxebizitzak eta bi fasetan egingo diren Babes Ofizialeko Etxebizitzak nahiz udal sustapenekoak. Bestalde, Alde Zaharrean hainbat eraikin bota eta etxebizitzak egingo dira. Prozesuak martxan daude, baina proiektu horiek datorren agintaldian egikaritzeko dira. Bestalde, aipatzekoa da Udalak alokairurako dirulaguntzetarako duen 180.000 euroko diru saila. Etxebizitza politika jarraikorra izatea nahi dugu, eta beharren arabera ikusiko dugu non eragin behar den.

Datorren agintaldiari begira, hobetzeko arlorik ikusten al duzu?



ZER PROPOSATZEN DU EHBILDUK?

EH Bilduk *Zugandik hasita, herria egiten* ariketa jarri zuen martxan urte hasieran: telefono zein Internet bidez 750 bizilaguni egindako elkarrizketak, gizarte eragileekin egindako bilerak eta arloz arloko parte-hartze saioak. Jasotako informazioarekin, "herritarren kezak eta beharrak" zehaztu ditu koalizioak, eta horiei erantzun diela azaldu du. Honako puntu hauek jaso ditu programan EH Bilduk:

EKONOMIA.

1.- "Industriaren garapenean jarriko dugu indarra, eta sektore guztien arteko oreka landuko da: base-ritarrak, merkataria... Sustapen Ekonomikoko plana berrikusi eta indartuko da".

2.- "Industria lurak birgaitzeaz gain, Azoka Plaza 2.0 proiektua eta merkataritza sustatzeko lerro propioa jarriko dira martxan.

3.- "Ekonomia sozialean jarri nahi dugu fokua. Esaterako, langabezia dauden pertsona guztiekin egongo gara banan-banan.

4.- "Formazioarako erraztasunak emango zaizkie herritarrei, eta bekak indartuko dira".

GIZARTEA.

1.- "Behar gehien dituzten herritarrei begira egingo dugu lan. Pentsiodunei 1.080 euro arteko gehikaria ematen jarraituko dugu, eta laguntza jubilatua gabe dauden alargunengana zabalduko dugu".

2.- "Adinekoen egoitzan eta zentroan plaza berriak sortuko ditugu".

3.- "Autismoa duten pertsonentzat zentroa irekiko dugu, eta emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko baliabideetan sakondu".

4.- "Gurera datozenentzat harrera protokoloa indartuko dugu".

ETXEBIZITZA.

1.- "Herritarren beharrei erantzuteko etxebizitza politika egingo dugu".

2.- "Alokairu sozialeko 47 etxebizitza egingo dira Esklabetan, eta alokairurako dirulaguntza ematen jarraituko dugu. Gainera, Alde Zaharrean 20 etxebizitza birgaituko dira".

3.- "Babes ofizialeko udal sustapeneko etxebizitza batzuk esleitu dira, eta agintaldi hasieran beste hainbatentz zozketa egin nahi dugu".

HIRIGINTZA.

1.- "Mantenu lanei, obra txikiei eta azpiegiturak hobetzeari garrantzia berezia emango diegu Adibidez, Zelai Luze eta Enparan Dorretxea elkartzeko obra egingo dugu".

2.- "Juan XXIII eta Bustinzuriko Errebala eraberrituko dira, eta beste hainbat auzotako proiektuak bizilagunekin adostuko ditugu".

3.- "Alberdi Enean aparkalekua egingo da, Urrestillako bidegorria bukatuko dugu, baita Lapatz zigilatzea ere".

4.- "Soreasuko sormen gunearen bigarren fasea egingo da, eta herrian liburu denda bat irekitzeko

proiektua landuko da. Horrez gain, herriko kirol proiektua sustatuko da taldeekin elkarlanean".

ELKARBIZITZA.

1.- "Sufrimenduaren aitortza eta errekonozimentua presente izango ditugu, sektore guztietako biktimentzat, salbuespenik gabe".

2.- "Egun giza eskubideen urraketak jasaten dituztenen sufrimendua gainditzeko lan egingo dugu; euskal presoena eta familiena.

3.- "Erabakitze eskubidearekin bat egiten dugu, eta herritarrek politikaren lehen lerroan jarri nahi ditugu. Berdintasun balioen baitan eraikitako Euskal Herri libre batean kokatzen dugu gure burua".

Proiektu guztietan "berdintasun balioak zein herritarren parte-hartzea" izango ditu EH Bilduk ardatz. "Zeharkako izaera izango dute parte-hartzeak, genero berdintasunak, inklusibitateak, euskarak, kultur ondarearen transmisioak eta ingurumenak".✱

EH BILDU-REN HAUTES ZERRENDA



Nagore Alkorta
41 urte.

Administrazio orokorreko teknikaria eta giza baliabideen arduraduna



Josu Labaka
40 urte.

Kooperatibista



Eneritz Albizu
27 urte.

Euskara teknikaria



Aitor Bereziartua
47 urte.

Ingeniaria



Leire Goenaga
35 urte.

Administrari fiskala



Agustin Lizarralde
56 urte.

Logistikako langilea



Ainara Larrañaga
29 urte.

Hezitzailea



Mikel Odriozola
37 urte.

Informatikaria



Idoia Arrizabalaga
32 urte.

Medikua



Egoitz Arruti
38 urte.

Errepideetako langilea



Nerea Illarramendi
51 urte.

Lanbide heziketako irakaslea



Ismael R. de Argandoña
47 urte.

Ingeniaria



Arantxa Oñederra
63 urte.

Aurrejubilatua



Aitor Letamendia
28 urte.

Muntatzailea



Lorea Aizpuru
39 urte.

Gizarte langilea



Jose Maria Iturria
74 urte.

Jubilatua



Olatz Izagirre
35 urte.

Psikomotrizista

ORDEZKOAK:

18. Haritz Arakistain.

19. Aiora Etxeberria.

20. Ander Larrañaga.

AMAIA ETXEBERRIA

EAJren alkategaia

“Nahiko parean izango gara EH BILdu eta EAJ”

Egun EAJren zinegotzi denak, alkategai izateko pausoa eman du. “Sorpresaz” hartu zuen proposamena, eta “ilusioz” ekingo dio agintaldi berriari. 📝👁️ Anartz Izagirre

Ez da erronka berrien aurrean kikiltzen den horietakoa Amaia Etxeberria. Kostatu egin zaio erabakia hartzea, baina zinegotzi izatetik alkategai aurkezteko pausoa eman du, “lantalde osoaren babesa” izango duela badakielako. Hark jakinarazi duenez, “herriarentzat” egingo du lan EAJk, eta “elkarlannerako” aukerak ikusten ditu, herriko giroa “lasaia” delako.

Zinegotzi izan zara amaitze-ar den agintaldian, eta alkategai aurkeztu zara datorrenenerako. Zergatik erabaki duzu pausoa ematea?

Zaila egin zait erabakitzea. Buelta asko eman dizkiot gaiari. Izan ere, beste rol bat hartu dut alkategai naizenetik, eta dena da konplika-

tuagoa. Agintaldi honetan zinegotzi izaterik ere ez nuen pentsatzen, eta begira; asko aldatu zait Udalaren inguruan nuen ikuspegia. Aitorrek [Gorrotxategi] eman zidan zinegotzi izateko aukera, eta orduan ere kezka izan nuen; izan ere, inoiz ez naiz izan politikan aurpegia ematekoa. Ideiak argi izan ditut, baita botoa nori eman eta nori ez ere, baina Udalean zinegotzi izateko asmorik ez neukan. Herri mailako lana egiteko pertsona apolitikoak bilatu zituen Aitorrek, eta egia esan udalgintzan badira politikarekin zerikusia duten puntu batzuk, baina Udaleko lana gehienbat herri mailakoa da. Sorpresa handia hartu dut horrekin, eta asko gustatu zait dinamika. Orain dela hamar urte dina-

|||DATUAK|||||

|||**Jaio.** 1970eko uztailaren 8a.
|||**Herria.** Azpeitia. |||**Bizitokia.** Azpeitia. |||**Lanbidea.** Diseinatzailea.



mika desberdina zen; gaur egun, asko lasaitu da giroa eta elkarrekin lan egiteko prest gaude. Urteak aurrera doazen heinean, Azpeitik giroa lasaia da, eta horrek elkarlana errazten du. Hori guztia, atzean lantalde bat dudala eta etxeko egoera ikusita, pausoa ematea erabaki dut.

Alkategaietako bi emakumeak zarete. Alkatea emakumea izateak zer eragin izango du herrian?

Emakume batek edo gizonezko batek eman dezakeen ikuspegia desberdina da nire ustez. Izan ere, gizonezkoen edo emakumezkoen kudeatzeko moduak desberdinak dira. Emakumeok ditugun rolen ondorioz, beste lan dinamika bat daukagu. Dena den,

emakumea ala gizonezkoa izan, denok nahi ditugu onurak bilatu.

Nolako zerrenda osatu duzue? Zein ezaugarri azpimarratuko zenituzke zuen hautes-zerrendatik?

Oso gustura gelditu naiz zerrendarekin, eta jende askori eskerrak eman beharrean nago. Harrituta gelditu naiz hautagaien borondatearekin, ez baita erraza zerrenda batean sartzeko prest dagoen jendea aurkitzea. Taldean denetarik dago: batzuek badute politikan ibilbidea; eta beste batzuek, ez, baina herrirako lana egiteko dela esan diegunean, baiezkoa eman digute. Bietatik izan behar da zerrendan: politikaz dakien jendea, gai batzuen inguruan jakintza duena... Saiatu gara hainbat dinamikan dabilen jendea batzen, eta garrantzitsuena, herriarentzat lan egin nahi duen jendea batzen.

Nolakoia izan da urteotan Udalean bizi izan duzun esperientzia?

Oso ona izan da. Asko eman dit bizitakoak, eta esan dezaket jende ikusgarria dugula Udalean. EAJn lantalde oso polita dugu, eta EH Bilduko lantaldearekin harremana harmoniatsua eta errespetuzkoa izan da. Esperientzia aberasgarria izan da.

Zortzi urtez jarraian oposizioan egon da EAJ. Nolakoak izan dira azken bi agintaldiak?

Nik uste, era batera edo bestera, guztioi gustatzen zaigula agintzea. Hala ere, oposizioan egoteak baditu bere alde onak; beste ikuspuntu bat hartzen duzu eta ikasteko balio du. Badakit orain dela zortzi urte EAJrentzat oso gogorra izan zela oposizioan gelditzea. Lau urte haietako lan dinamika ez zein hain ona, EH bilduk lanerako eta elkarlanerako aukerarik ez zuelako ematen. Hasierako bi urteak izan ziren gogorrenak, baina azken urteetan ez dut oztoporik ikusi EH Bilduren aldetik, eta batzordeetan dinamika oso ona izan dugu. Errespetua gailen-



du da, eta adostasunetara heldu gara. Denok ohartu gara gai zehatz batzuetan ideia desberdinak izan arren, herriarentzat ari garela lanean; hau da, ez gara ez Foru Aldundia, ez Eusko Jaurlaritza. Azpeitiarrak gara denok, Azpeitian bizi gara eta herriarentzat lan egin behar dugu.

Bukatzean den agintaldian bi alderdi egon zarete Udalean. Boto joerari erreparatuta, gauza bera gerta liteke datozen bozetan. Horrek egoera erraztu ala zaildu egiten du?

Zenbat eta talde gehiago, ikus-

puntu desberdin gehiago; hori onura bat da. Azkenean, denok joaten gara itsu-itsuan geurearekin aurrera, baina garrantzitsua da beste norbaitek esatea gauzak beste era batera ere egin daitezkeela. Ikuspuntu berriak izatea beti da ona, baina halakoetan, konplikatuagoa ere egiten da adostasunera heltzea. Bi alderdirekin ondo moldatu gara, eta hemendik aurrera ere ondo moldatuko gara uste dut.

Irabazten duen alderdiak gehiengo osorik lortuko ez balu, EAJk egingo al luke akordiorik beste alderdiren

batekin Udal Gobernua osatzeko?

Ez dugu momentuz horrelakorik planteatu. Azken agintaldietako ibilbidea ikusita, sorpresak egon daitezkeen arren, ez dugu aurreikusten horrelakorik izango denik. Uste dut EH bilduren eta EAJren artean egongo dela lehia. Herritarrek ez du boto bera ematen Espainiako Gorteetarako bozetan eta udal hauteskundeetan, eta ez dugu uste herritarrek Espainiako hauteskundeetako joera errepikatuko dutenik udalekoetan.

Azken agintaldian hartutako erabakietatik, zein mantenduko zenituzke eta zein aldatu?

Hartu diren erabakiak onak izan direla uste dut, denon artean ikusi baitugu Azpeitiak zer behar dituen. Sustapen Planari buelta batzuk eman dizkiogu, eta industriaren inguruan ere hausnartu dugu. Urteen poderioz ikusi dugu zein arlotan egin ditzakegun hobekuntzak. Agintaldi honetan hartutako erabakien artean, garrantzitsuak dira Gizarte Zerbitzuetako dirulaguntzak eta alokairurakoak, eta horiek indartu egingo nituzke.

Zein dira herrirako dituzuen proiektu nagusiak?

Udalean 2025. urtera arteko Plan Estrategikoa daukagu, eta horretan oinarrituta, hainbat egokitzapen egin dugu. Guk, momentu honetan, Azpeitian ikusten dugun behar nagusia industria eremua indartzea eta hobetzea da. Azpiegitura aldetik, industria eremua oso txikia dela iruditzen zaigu, eta trastea litzateke industriak kanpora ihes egitea. Horrez gain, Gizarte Zerbitzuak nabarmenduko nituzke. Adinekoen egoitzak txikiegi gelditzen ari dira, eta horiei irtenbidea eman behar zaie. Ikusi beharko genuke Udalak Gizarte Zerbitzuetarako dituen laguntzak nahikoa diren ala ez horretarako, eta horiek hobetzerik ba al dagoen. Orain heldu beharreko gaiak bi horiek direla iruditzen zaigu. Herriko gazteek eta helduek herrian lan egin eta horiek bertan

ZER PROPOSATZEN DU EAJK?

EKONOMIA.

1.- "Industriak izan behar du gure herriko ekonomiaren ardatza, eta horretarako, Landetako eta Larringo industrialdeen garapena bultzatuko dugu Azpeitiaren garapen ekonomikoa indartzeko".

2.- "Azpeitiko ekonomiaren beste oinarri sendoetako bat merkataritza txikia da, eta hori babesten jarraituko dugu".

GIZARTEA.

1.- "Adinekoek dituzten beharrei zuzendutako plan integrala osatuko dugu, azpeitiarren ongizatea bermatzeko. Zerbitzu integralak eta programa berriak sustatuko ditugu".

2.- "Alde Zaharreko bizilagunen tzentz egoiliar txartela kaleratuko dugu, haien errealitatera egokituta. Bide beretik, Alde Zaharreko

hainbat gunetan aparkaldi mugatuko aukera jartzea aztertuko dugu".

HIRIGINTZA.

1.- "Herriaren garapenerako eta ongizaterako ezinbestekoa den proiektu garrantzitsua dugu saihebidetza. Herriaren erdiguneko sortzen diren zirkulazio arazoak konpontzeko saihebidetza proiektua berreskuratu eta eguneratuko dugu".

ETXEBIZITZA.

1.- "Alokairuko etxebizitza sozialak bultzatzen jarraituko dugu. Gaur egungo eskaintza gizartearen errealitatera egokituko dugu, pertsona helduak eta gazteak kontuan hartuta".

KULTURA.

1.- "Herriko kultur ondarea sustatzen jarraituko dugu, kultura gizartea sendotzeko eta saretzeko tresna indartsua delako. Soreasu

kulturgunea sormen eremu beazala indartzen jarraitzea izango da gure egitasmoetako bat, herriko gainerako kultur eremuak ahaztu gabe".

TURISMOA.

1.- Herriko turismo dinamika sustatuko dugu, orain dauden egitasmoak indarberrituz eta berriak sortuz".

HEZKUNTZA.

1.- "Etokizuneko gizartearen zutoinak orain eraiki behar dira, gero gizarte sendo eta indartsu bat izan dezagun. Gazteek dituzten erronkei erantzuneko dien eta haien beharretara egokituko den hezkuntza sare irmoa garatuko dugu".

KIROLA.

1.- "Kirol arloa indartzea, berritzea eta eremu horretan rol berriak eraikitzea izango da gure jardunetako bat. Herriko kirolariei, taldeei

eta kirola egin nahi duten gainerako herritarrei begira, azpiegiturak eguneratuko eta sustatuko ditugu".

ELKARBIZITZA.

1.- "Azken agintaldietan egin dugun bezala, definitzen gaituen gobernantza ereduan urratsak egiten jarraituko dugu, elkarlanean. Azpeitiarren elkarbizitzarako pausoak ematen jarraituko dugu, herria eta herritarrak politikaren lerro guztien erdigunean kokatuta. Azpeitiko EAJrentzat herria eta herritarrak dira politikaren ardatza, eta aurrerantzean ere hala izango dira".

BESTERIK.

1.- "Banda ultrazkarra ezarriko dugu landa eremuko auzoetan eta baserrietan, ezinbestekoa baita landa eremua digitalizatzea. Horrela, landa eremuetako bizilagunei herrigunekoen baliabide berak eskainiko dizkiegu".*

EAJ-REN HAUTES ZERRENDA



Amaia Etxeberria
48 urte.
Diseinatzailea



Rebeka Larrañaga
46 urte.
Zuzenbide idazkaria



Ander Ugarte
37 urte.
Turismo agentea



Izaskun Abaunz
44 urte.
Kooparatibista



Aritz Azpiazu
35 urte.
Organogilea



Jon Beristain
41 urte.
Soldatzailea



Alberto Frantzesena
64 urte.
Komertziala



Mamen Alberdi
49 urte.
Estetizista



Ane Gil
25 urte.
Irakaslea



Antonio Gallarin
38 urte.
Tailerreko arduraduna



Beatriz Prat
53 urte.
Udaleko arreta zerbitzu-ko langilea



Aritz Ansorregi
41 urte.
Muntatzailea



Nerea Etxeberria
35 urte.
Irakaslea



Juan Mari Gajate
47 urte.
Naturopata



Jabier Larrañaga
47 urte.
Ogasun diputatua



M. Karmen Arozena
75 urte.
Jubilatua



Iñaki Sagarzazu
50 urte.
EHUko irakaslea eta abokatua

ORDEZKOAK:

- 18. Axun Etxaniz.
- 19. Juan Ramon Tolosa.
- 20. Nerea Aldai.

OSCAR MURILLO

PSE-EEren alkategaia

“Pse-EE geratzeko
asmoz doa Azpeitira”

Azken udal hauteskundeetako joerarekin amaitu eta Udalean ordezkaritza lortu nahi du PSE-EEk. Murillo bigarrenenez aurkeztu da alkategai.  Ane Olaizola (Donostia)

Zuzenbide ikas-
ketak eginda, PSE-EEko kontrol
eta administrazio lanetan dihardu
Oscar Murillok. Donostiarrak
2003an egin zuen politikarako
jauzia, Legazpiko Udalean PSE-
EEren zinegotzi kargua hartu zue-
nean. Bi agintaldi egin zituen
hango Udalean, zinegotzi eta bo-
zeramaile lanetan.

Duela lau urteko udal hauteskundeetan ere PSE-EEren Azpeitiko zerrendaburu izan zinen. Zerk eraman zaitu hautagaitza berriaz errepikatzerara?

Aurreko hartan oso eroso sentitu nintzen, eta horregatik erabaki dut berriz zerrendaburu aurkeztea. Duela lau urte, une jakin batzuetan soilik egin nuen PSE-

EEeren kanpaina, eta oso eroso sentitu nintzen. Beraz, alderdiko kideek Azpeitiko alkategai izateko aukeratu nindutela esan zidatenean, gustura onartu nuen eskaintza, duela lau urte ez bainuen ezer negatiborik jaso. Orain, gainera, bizitzako garai lasaiagoan nago.

Zer harreman duzu Azpeitiarekin?

Ez dut familia arteko loturarik herriarekin, baina lagun batzuk badi-tut han. Izan ere, Gipuzkoako Judo Federazioko presidentea izan naiz urteetan, eta Gipuzko-ko ia herri guztiak ezagutu ditut horri esker.

Herriarekin loturarik izan ez arren, ezagutzen al duzu?

Bai, noski, fisikoki ezagutzen dut.

|||DATUAK|||

III **Jaio.** 1956ko otsailaren 7a.

||| **Herria.** Donostia. ||| **Bizitokia.** Donostia. ||| **Lanbidea.** PSE-EEko kontrol eta administrazio langilea.



Harriak eta monumentuak izugarri gustatzen zaizkit, eta beraz, Loiolako Santutegian ere izan naiz. Azpeitiko kaleak ere ezagutzen ditut, eta ez nintzateke han galduko; badakit herriko plazara nola iritsi. Azpeitia herri polita eta oso eroso da, hori da behintzat herriari hartu diodan itxura. PSE-EEren kanpaina askotan egon naiz, eta lan horri esker ere, Gipuzkoako herri asko ezagutu ditut. Fisikoki ezagutzen ditut herriak, baita Azpeitia ere, baina ez dakit herriaren egunerokotasuna zein den. Dena den, konpromiso sozialistak hartu eta egitekoen *vademecuma* eramango dut Azpeitiko Udalera.

Jarraitu al duzu amaitzear den Azpeitiko agintaldia?

Egia esateko, gutxi jarraitu dut. Badakit agintaldiaren hasieran EH Bilduren eta EAJren artean liskar batzuk egon zirela hainbat gairen inguruan. Baina ez dut uste politikoki herri gatazkatsua izan denik Azpeitia. Ez dakit plan urbanistikoei dagokienez arazorik ba al dagoen, eta orain hasiko naiz aztertzen, esaterako, Babes Ofizialeko Etxebizitzaren gaia nola dagoen herrian. Izan ere, uste dut Azpeitian nahiz gainerako herrietan egon daitezkeen gai mekaniakoak direla horiek. Gaiaren inguruan hitz egin dut, esaterako, Janire Igoa Azkoitiko PSE-EEren alkategaiaekin.

Identifikatuta al duzue nola hobetu daitezkeen Azpeitia?

Duela lau urte hondakinak biltzeko atez atekoaren gaia zegoen puri-purian, baina ikusten dugu gai hori dagoeneko gaindituta dagoela. Iruditzen zitzaigun hondakinak kudeatzeko guk proposatutako irizpidea zela arrazionalena, baina tira... Batez ere, Babes Ofizialeko Etxebizitzari jarriko diegu arreta, eta gure asmoa da etxebizitza horiek alokairuan jartzea, hori izango litzatekeelako neurririk zuzenena edozein lekutan; bai Donostian, baita Azpeitian ere. Etorkizunak bide horretatik joan beharko lukeela uste dut, eta horretan egin behar dugu lan. Ikusi behar da, ordea, zein diren Azpeitiko errealitatea eta herritarren eskariak, baina ez dut uste Azpeitia apartekoa denik gainontzeko herriekin alderatuta.

Enpleguari dagokionez, badaikit urte txarragoak igaro dituztela Azpeitian. Badituzte Azpeitiko altzari enpresetan lan egin duten lagunak, eta jarraitu nuen Corrugados enpresaren lan gatazka ere, sindikatuetan adiskideak nituelako. Baina egoera horri guztiari buelta eman diote, eta horrek asko pozten nau, tarte horretan PSE-EEK Udalean gobernatu ez badu ere. Izan ere, azken urteetan jaso dudana esperientzia politikoak erakutsi dit pertsonak direla garrantzitsuenak, haien etiketen eta



alderdien gainetik. Finean, pertsonak dira gauzak egiten dituztenak, eta ideien arteko eztabaida egotea da funtsezkoena. Batzuetan, beharrezkoa da dogmak kentzea.

Zer sumatzen duzu faltan Azpeitian? Eta zeintzuk dira herriaren indarguneak?

Gutxi esan dezaket horri buruz. Are gehiago, Legazpin zinegotzi izan nintzenean ondorioztatu nuen oso gutxi ezagutzen dugula lurraldea: Donostiako jende askok galdetzen zidan Legazpinen eta haren kokapenaren inguru-

rian. Gezurra esango nizuke Azpeitiaren egunerokotasuna ezagutzen dudala adieraziko banizu, baina baditugu han ere ezarri ditzakegun irizpide orokor batzuk. Uneotan, ez naiz etorkizuneko proiektuen inguruan hitz egiteko gai, ordea. Azpeitia eta Azkoitia arteko errepidea da gehien ezagutzen dudana, eta ikusi dut han etxebizitzak eraiki dituztela. Hori ona dela uste dut; izan ere, beti esan izan dut azpiegitura guztiak onak direla herri eta hiri batentzat. Hemen, Donostian, zenbaitek esaten du metroa egiten dirutza

gastatu dutela, baina hasiera batean, azpiegitura oro da ona. Biharko egunean, Altxako bizilagun bat hamar minutuan iritsi daiteke Kontxara, hori ona da, besteak beste, lurrazaleko arazoa arintzen laguntzen duelako azpiegitura horrek.

Zein dira zuen programako puntu garrantzitsuenak?

Oraindik bukatu gabe dugu programa, baina etxebizitzak, ongizatea eta sozialismoaren eta ezkerren ezaugarriak indartzea izango dira puntu garrantzitsuenak.

Bi agintaldi eta erdiz izan zinen PSE-EEren zinegotzi Legazpiko Udalean. Nolakoa izan zen hango esperientzia?

Udalean jarduteko esperientzia neureganatu nuen Legazpin. 2003an sartu nintzen hango Udalean, eta gizartearentzat urte latzak izan arren, inongo arazorik gabe egokitu nintzen herrira. Udalean egon nintzen agintaldietan, EAK eta ANVk izan zuten alkatetza, eta oso hartu-eman zuzena eduki nuen guztiakin. Gogoraten naiz zinegotzi nintzela, ETak Isaias Carrasco hil zuela eta tentsio handiko uneak bizi izan nituela. Baina orokorrean, giroa zuzena zen guztion artean, eta elkar errespetatzen genuen.

Azpeitiak eta Legazpik badute antzekotasunik, industria delako bi herrietako jarduera ekonomiko nagusia. Dena den, Legazpin PSE-EEren taldea finkatuta zegoen, eta hori da, beharbada, Azpeitiarengandik bereizten duena. Dena den, gure helburua da Azpeitiko Udalean egotea, eta luzera begira, gainera.

Nola aurreikusten dituzu datozen udal hauteskundeak?

Alderdiaren barruan baikortasun handia nabari dut, sentimendu horrek gero botoetan zer isla izango duen ez dakidan arren. Duela lau urte, esaterako, oso tentagarriak ez ziren planteamenduekin hasi genuen udal hauteskundetako kanpaina, baina hautagaiak zein kanpainen lan egin zuten lan-

ZER PROPOSATZEN DU PSE-EEK?

PSE-EE alderdiak konpromiso "etiko eta politikoetan" oinarritutako hauteskunde programa osatu du Azpeitirako. Gardentasuna, aniztasuna, elkarbizitza, berdintasuna eta gizartearekiko konpromisoa oinarri hartuta kudeatu nahi du udala. Alderdi sozialistak lehentasuna emango die agenda sozialari eta zerbitzu publikoak hobetzeari. PSE-EEK azaldu duenez, herriaren garapen jasagarria sustatzeko kudeaketa programa "serioa eta zehatza" osatu du.

EKONOMIA.

1.- "Kalitatezko enplegua bultzatuko dugu. Horrez gain, tokian to-

kiko eta bailarako askotariko planen bitartez, herritarren lan munduratzeari laguntzea sustatuko dugu".

2.- "Lan munduratzeko zailtasun bereziak dituzten herritarrei laguntzeko programa zehatzak ezarriko ditugu".

3.- "Herriko ekonomia sustatzeko hainbat laguntza eman eta babes planak garatuko ditugu, beti ere, tokiko merkataritxiak lehenetsita".

GIZARTEA.

1.- "Pertsonak babestea eta horien duintasuna bermatzea izango da gure lehentasuna. Horretarako, kolektibo zahargarriengan jarriko dugu arreta, hala nola adinekoengan, haurrengan, gazteengan zein gizarte bazterkeria jasateko arriskuan dauden herritarrengan".

ETXEBIZITZA.

1.- "Babes Ofizialeko Etxebizitzetan jarriko dugu arreta nagusia, eta gure helburu nagusia da etxebizitza horiek herritarrei alokairuan eskaintzea; izan ere, uste dugu hori dela etorkizunerako bidea.

INGURUMENA.

1.- "Energia erangikortasuna bermatzeko konpromisoa hartuko dugu".

2.- "Naturklima klima aldaketaren Gipuzkoako fundazioarekin lankidetzan ariko gara, herrian ekintza zehatzak indartu ahal izateko".

TURISMOA.

1.- "Turismo jarduera jasagarriak sustatuko ditugu, lanpostuen kalitatea eta sektorearen profesionalizazioa aintzat hartuta".

2.- "Turismoak ekonomikoki jasagarria izan behar du, eta sektore hori baliatuko dugu lurralde kohesioa lortzeko".

PAREKIDETASUNA.

1.- "Tokiko kontratazio publikoaren bidez, parekidetasunaren aldeko ekintza eta programa zehatzak martxan jartzen dituzten enpresak eta lantegiak sarituko ditugu".

2.- "Berdintasunean oinarritutako hartu-emanak sustatzeko, horretara bideratutako udal plana osatuko dugu".

BESTERIK.

1.- "Herrien arteko garraio publiko jasagarriaren aldeko apustua egingo dugu, zerbitzu horrek gizarte eta lurralde kohesioan eragin dezan".*

PSE-EEren HAUTES ZERRENDA



Oscar Murillo
60 urte.
PSE-EEko langilea



Ramon Etxezarreta
64 urte.
Jubilatua

GAINERAKO ZERRENDAKIDEAK

3. Nerea Alberdi. 4. Unai Ayuso. 5. Rosario Castrillo. 6. Itziar Badiola. 7. Josu Arriola. 8. Rosa Arana. 9. Jaime Chaos. 10. Maximo Cordon. 11. Laura Etxeberria. 12. Gorka Chimeno. 13. Cristina Combarro. 14. Juan Antonio Arias. 15. Ana Añibarro. 16. Jesus Maria Alonso. 17. Esther Diez.

ORDEZKOAK: Ez dituzte.

BIYONA
BERRIKUNTZAK-REFORMAS
www.biyona.net / biyona@biyona.net

Etxebizitza
zaharberritzea
nahi duzu?



Erositako etxebizitza
eraberritu nahi duzu?

Zer eskaintzen dugu?

Konpromisorik gabeko aurrekontua
Gremioen koordinazioa
Epeak betetzea
Erakusketa handiak

Abendaño bilerdion 2
Tel. 943 136 010
Zarauz

Santiago-ko 12
Tel. 943 343 443
Zumala

San Juan, 15 edif. AOR
Tel. 943 662 110
Azkoitia

Gesalego Kalea, 18
Tel. 943 149 241
Zestoa

Etxean ahaztu zitzaidan idatzia

Nuarbe, 29 urteko soka liburuaren aurkezpena. Sanagustinen. Eguerdirako zazpi minutu falta. Aurkezleen mahaian lau persona eta ni, sokatira taldeko ordezkari gisa. "Hi, Luix, puntual hasi behar diagu, e! Hamabietan". "Bai, bai". Jendea gainezka. Aulki guztiak beteta, eta zutik pila bat. Prestatutako idatziaren bila hasi zakutotan eta... falta! Mekauben! Eta orain? Izerdi larria kopetan, bisajea zurbil, oinak dantzan eta burmuinetan anabasa galanta.

Koadernoan idatzirik nuen zirriborroan oinarrituz, hasi naiz, zeharo ahomotel. Eta gero... tira, hainbestean... "Zer, hasieran betaurrekoekin arazoa izan duzu, ezta?", lagun batek.

Liburuaz idazteko aitzakia

Eta horrela zion etxean ahaztutako idatziak:

"Orain ikusi ditugun irudiak *Bakearen soka* izeneko dokumentaletik hartuak dira. Dokumentalaren hasierako hitzak hauek dira: *Nuarbe herriaren historia da hau. Behin, Europari gaina hartzea erabaki zuen. Gero, munduari. Eta, hau bai harrigarria: lortu egin zuen.*

Eta hain zuzen, horixe kontatzen da, besteak beste, liburu horretan. Ea nola demontre lortu zuten nuarbetarrek gaina hartzea mundu osoari. Ia hiru hamarkadako historia bitxi bezain harrigarria. Auzo txiki bateko kuadrilla ausart eta indartsua nola bihurtu zen errege bost kontinenteetan praktikatzan den kirol batean: sokatiran. Zerotik hasita. Lehenik ikasle eta gero irakasle, eredu bihurtu arte. Liburuak irakurtzen duenak, informazioaz aparte, arrakastaren eta mirariaren gakoa zein izan den ere jakingo du.

Duela hamabi urte pasatxo, 2006ean, soka zintzilikatu beharrean aurkitu zen taldea. Harrezkero kezka eta desio nagusia izan du taldeak, hain historia bitxi bezain ederra liburu baten islatzea. Inguruko jendeak ere halarazi digu behin baino gehiagotan kontu



|||||||luis gurrutxaga|||

|||Horixe zen, bada, liburuaren aurkezpenean hainbeste faltan bota nuen idatzia



hau: 'Egin eta lortu dituzuenak lortuta, penagarria izango huke zuen balentriak ahaztuta gelditzea'.

Ni ez naiz tiralaria izan. Taldeari laguntzen saiatu naizen laguna naiz. Lekuko izan naiz mutil hauen adorea eta iraunkortasuna nola-koak izan diren kontatzeko. Sinestu ezinak. Horregatik eta beste arrazoik askogatik, liburu hau, informazio iturri izateaz gain, talde osoarentzat omenaldi gisa baliagarria izan dadila.

Era berean, Laxaro Azkunek 15 hilabete hauetan egin duen lanaren lekuko izan naiz. *Ikaragarriye*, nuarbetarrez esanda. Taldearen izenean, Laxaro, betirako nuarbetarren estimuan izango haiz, egindako lanagatik. Eskerririk asko. Manuel Arregi: hirekin liburugintzan asko ikasi diagu eta benetan azpimarratzeko lana egin duk. Zorionak eta esker mila. Berdin Eregiko Leireri eta Iñakiri. Argazkilari lanetan Juan Joxe Agirre azpeitiarra, hainbat liburutan parte hartutakoa. Lan bikaina hirea ere, Juan Joxe.

Baina amets hau egia bihurtzeko ezinbestekoa zen lehenik euskarri ekonomikoa bermatzea. Azpeitiko Udalak lehen instantetik bultzatu zuen egitasmoa, kostuaren zatirik handienari erantzunez. Eneko, alkate jauna: Udalaren laguntzarik gabe, argitaratuko al zen liburuak? Zalantzak. Beraz, mila-mila esker, Eneko, taldearen partetik. Era berean eskerrak, lagun du diguten bailarako beste erakundeei eta udalei. Ekoizpen mardul hau aurrera ateratzeko, ezinbestekoa izan da denen laguntza".

Horixe zen, bada, liburuaren aurkezpenean hainbeste faltan bota nuen idatzia, eta aitzakia bezala orain erabili dudana, liburuaren berri emateko.✕

Zurekin

AZPEITIA

ehbildu

gara



NAGORE ALKORTA

Azpeitiko alkategaia

“Esperientzia eta ilusioa duen taldea osatu dugu, azken urteetako norabideari jarraituz Azpeitiak dituen erronkei modu eraginkorrean erantzungo diena”.



1. EKONOMIA ETA LANA



2. GIZARTE BEHARRAK ETA ADINEKOAK



3. ETXEBIZITZA BEHARRARI ERANTZUTEA



4. HERRIGINTZA ETA PARTE-HARTZEA



5. ELKARBIZITZA



Juan Karlos Izagierre
Presidenta

«Aukera eta ahalmen handiko herrialdea da Gipuzkoa»



Pernando Barrena
Europako Parlamentuko kidea

«Europako Parlamentua, lanerako beste gune bat EH Bidurentzat»

Argentinatik Azpeitira

Desbandadas batukada feministako kideak Azpeitian izango dira hilaren 25ean. Bahia Blanca hiriko hainbat emakume igoko da Sanagustin kulturguneko agertokira. 📍 **Julene Frantzesena**

Desbandadas Bahía Blanca (Buenos Aires, Argentina) hiriko batukada talde feministak Azpeitian egingo du geldialdia hilaren 25ean. Maiatzean Euskal Herrian barrena egiten ari diren birako azken kontzertua izango da taldekideek herrian eskainiko dutena; izan ere, Azpeitira iritsi aurretik Elorrión, Berrizén, Astigarragán, Maetzun, Gasteizén, Durangon nahiz Bilbon izango da taldea. Ondoren, Kantabriara eta Asturiasera joango da taldea.

Desbandadas taldea 2018an sortu zuten Argentinako hainbat emakumek. Ahotsak, danborrak eta kaleko mugimenduak dira taldearen ezaugarri nagusienak. Gainera, taldeko emakumeek adierazpenaren ahalduntzearen bidez lantzen dute feminismoa, eta biolentziaren eta matxismoaren aurkako askotariko aldarriak zabaltzen dituzte beren mezuetan.

Taldeak aurtan kaleratu du estudioko lehen lana, *DesBandadas, una cronica musical feminista* izenburupean, eta hain zuzen ere, disko horretan jasotako hainbat doinu eta erritmo entzun ahal izango dira Azpeitiko kontzertuan. Lan horretan ere oso presente izan du taldeak nekatoek eta emakumeek matxismoarengandik jasaten dituzten

||| DATUAK |||

III Zer. Desbandadas
 batukada feministaren
 kontzertua. **III Eguna.**
 Maiatzaren 25a (larunbata).
III Ordua. 20:00. **III Tokia.**
 Sanagustin kulturgunea.
III Antolatzailea. Kulturaz
 kooperatiba.

biolentzia mota guztiak. Desbandadasek kantetako bat azpimarratu du: Silvia Palumbo bakarlarik sortutako *Ni una menos*, hain zuzen ere. Hamabi abestirekin osatuko dute lehen diskoa batukada taldeko kideek.

Doako emanaldia

Emanaldia 20:00etan izango da Sanagustin kulturgunean, eta sarrera ez da ordaindu beharko.*

DES BANDADAS

12 **abesti.** Dozena bat kantu bildu dituzte Desbandadas batukada feministako kideek estudioko lehen lanean. Matxismoaren aurkako mezu feministak jaso ditu taldeak diskoan.✴



Desbandadas taldeko kideak emanaldi batean.

|||BESTERIK|||

1 Txikienentzat ipuin kontaketa

Yolanda Arrietak 2 eta 3 urteko haurrei zuzendutako ipuin kontaketa saioa eskainiko du. Haurrek eta gurasoek gozatu ahal izango dute egitasmoaz, eta ez dago aurrez izena eman beharrik.

||| **Eguna.** Maiatzak 13
(astelehena). ||| **Ordua.** 18:00
||| **Tokia.** Udal Liburutegia.

2 Badator Sare Eguna

Sare Eguna antolatu dute aurretik, eta egun osoan hainbat ekitaldi izango da, hala nola krosa, Ekaintxouren emanaldia, bazkaria, manifestazioa eta kontzertuak.

||| **Eguna.** Maiatzak 18 (zapatua).
||| **Antolatzailea.** Azpeitiko
Sare.

3 Herritartasun eskoletako saioa

**Loiola Zentroaren Herritartasun
Eskolen barruan, *Herritarra
izatea. Ni besteekin jesusen
bidean* hitzaldia izango da.**

||| **Eguna.** Maitzak 21 (asteartea).
||| **Ordua.** 19:00. ||| **Tokia.** Loiola
Zentroa.*

|||Azpeitiko ekimenez informazio
gehiago: uztarria.eus/agenda

IKA
argi lanak s.l.

Instalakuntza Elektrikoak
Urko: 618 96 49 95 / Jox: 648 12 02 71
ikaargilanak@gmail.com www.ikahistemak.com
20730 AZPEITIA

AIZPURU AUTOAK
Pozivamo Vas na posjetu

Tel: 940 81 23 89
Fax: 940 81 22 81

aizpuru@aizpuru.net
www.aizpuru.net

Amara 17, 20730 AZPEITIA

AZPEITIA

BAT EGINIK

AMAIA ETXEBERRIA ETXEBERRIA

ADIBETUEKIN ETXEBERRIA ETXEBERRIA

MARKEL OLANO ARRESE

ORRIKIN ETXEBERRIA ETXEBERRIA ETXEBERRIA

EAJ-PNV.EUS



**eaj
pnv**



EMAN BOTOA

Fp

FABRIKAZIOAREN
FABRIKAZIOAREN

imh

FABRIKAZIOAREN
CENTRO FABRICACION
CENTRO FABRICACION

HEZIKETA ZIKLOAK

Informazio saioa: maiatzak 18
11:00etan | IMH (Elgoibar)

Baieztatzeak: 943 74 82 65
amaia@imh.eus

Webgune berria!

www.imh.eus



imh

FABRIKAZIOAREN
CENTRO FABRICACION
CENTRO FABRICACION

UPV EHU

INGENIARITZA GRADU DUALA

Webgune berria!

www.imh.eus



Informazio saioa: maiatzak 18
11:00etan | IMH (Elgoibar)

Baieztatzeak: 943 74 82 64
ingeniaritza.ehu@imh.eus


HITZ GEZIDUNAK



Egilea:
Luma

* Azpeitiko liburuzaina

SUDOKUA



||| UZTARRIAREN LEHIAKETA: HITZ GURUTZATUAK |||||

HITZ GURUTZATUAK

Ezker eskuin

1. Norbaitentzat, bere familiako besteak. 2. Gure herriko futbol zelaia. 3. Igarobi-dea, pasabidea. Ni da galegoz. Oinarrizko edari. 4. Sodioa balio du. Jantzkeran eta itxuran behar lukeen apaintasun edo txukuntasunik ez duena. 5. Eztabaiden inguruko liskarrak. 6. Garau, bihi. Ate, hitz elkartzeetan. Non deklinabide kasuaren atzizkia. 7. Jainko egiptoarra. Alaitasun. Juntagailua. 8. Iodoa balio du. Bizkaiko ibaia. Hitzarmen. 9. Diosal hitza, eskuarki alde egitean esaten duguna. Ganibet. 10. Abesbatzak. Kasik.

Goitik behera

1. Agintea dutenak. 2. Eskuaz birarazten den larruzko uhala, harriak jaurtitzeko arma gisa erabiltzen dena. Errepikatuz, nahi. 3. Jardun. Musika nota. Gure planeta. 4. Metalen erakarlea. Hego Amerikako errepublika. 5. Alfabetoko hizki baten izena. Erleek eraikitzen duten egitura, abaraska. Bokala. 6. Emakume izena. Nork deklinabide kasuaren atzizkia. 7. Lerdea. Bi da zenbaki erromatarren arabera. 8. Modua atzizkia. Bokal errepikatua. 48 ordu barru. 9. Apurtuta, zatituta. 10. Nafarroako udalerria, Bortzirietan. Oso-oso txiki.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

||| HITZ GURUTZATUEN SOLUZIOAK

BIDALTZEKO EPEA. Maiatzak 22 (asteazkena) ||| NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behe (Azpeitia) edo lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara ||| IRABAZLEARI SARIA. Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta ||| PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da. Hitz gurutzatuak zuzen osatu ondoren, moztu denborapasa eta gutunazal batean bidali.

||| SOLUZIOAK |||||

HITZ GEZIDUNAK

I	A	B	●	R	A	K	A	R	A	Z	●
R	I	●	Z	A	●	E	●	A	M	I	L
U	S	T	E	T	A	K	●	U	R	●	
X	T	A	●	A	O	●	A	L	A	T	A
A	E	●	A	R	A	R	A	B	A	R	●
●	R	A	D	A	●	L	A	T	R	E	P
I	R	A	R	B	N	A	R	A	●	B	●
E	R	●	I	A	R	A	H	A	●		
E	D	E	I	B	O	A	R	I	G	I	
●	E	●	A	●	I	●	I	●			

SUDOKUA

2	9	7	6	2	9	3	5	8	4	1	5
4	9	4	3	9	6	8	1	2	5	7	3
8	5	8	1	5	4	2	7	6	3	9	1
6	4	3	7	1	8	9	2	5	1	2	9
1	2	9	6	5	3	4	8	7	8	5	7
8	5	7	9	4	2	6	3	1	6	3	1
9	6	8	2	7	1	5	4	3	7	3	5
7	3	5	8	9	4	2	1	6	2	1	6
2	1	4	3	6	5	8	7	9	4	3	6

||| UZTARRIAREN APIRILEKO LEHIAKETA |||||

IRABAZLEA



Ixabel Jauregi
Uztarria Komunikazio Taldearen bazkidea da aldizkariko 215. lehiaketaren irabazlea. Kutxillo urdaitegiak emandako produktu sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, lehiaketaren irabazlea Kutxilloren oparia eskuetan duela.

Urdalazpikoak, hestebeteak eta gaztak

Etxeko berezitasuna:
Ezkur urdalazpiko Iberikoa


Eñaut: 656 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damaso Azkue 6

Bozen atal berezia, eskura

Uztarriak udal eta foru hauteskunderen atal berezia sortu du webgunean. Bertan bilduko ditu hedabideak hauteskunderen lotutako albisteak eta. Alkategaien mahai ingurua ere antolatu du hilaren 14rako.  Erredakzioa

Uztarria Komunikazio Taldeak datorren maiatzaren 26ko udal eta foru bozen inguruko atal berezia sortu du *Uztarria.eus* webgunean. Atal horretan bilduko ditu hedabideak bozei lotutako albiste, argazki eta bestelako guztiak. Webgunearen eskuineko zutabearen ikus daiteke atala, eta dagoeneko bertan irakur daitezke alderdiek herrian egin dituzten ekitaldien-eta inguruko albisteak.

Bestalde, aurreko udal hauteskundeetan egindako moduan, alkategaien mahai ingurua antolatu dute Uztarriak, *Urola Kostako Hitzak* eta Erlo Telebistak elkarlanean. Sanagustin kultur gunean izango da saioa, 19:00etan, eta herritar ororentzat irekitako ekitaldia izango da. Nagore Alkorta EH Bilduren alkategaia eta Amaia Etxeberria EAJren alkategaia parte hartuko dute mahai inguruan; PSE-EEren zerrendaburu Oscar Murillok ez du parte



hartuko solasaldian, euskaraz izango delako.

Anartz Izagirre kazetariak gidatuko du saioa, eta bi hautagaiei herriarekin lotutako hainbat gai jarriko dizkie mahai gaineen. Ikus-entzuleek ez dute galderak egiteko aukerarik izango. Erlo Telebistak zuzenean emango du saioa, eta *Uztarria.eus*-en ikusi ahal izango da.

Bestalde, Alkorta eta Etxeberria Uztarriaren egoitzan izango dira kanpainako azken astean, elkarri-

keta digitalak egiten. Herritarrek bi hautagaiei galderak bidaltzeko epea aurki zabalduko du Uztarriak, eta horiei erantzuteko tarte hartuko dute bi alkategaiek (elkarriketa *on line*-en datak jakinaraziko ditu Uztarriak datozen egunetan).

Maiatzaren 26an udal eta fotu bozen nahiz Europako hauteskundeen emaitzen berri emango du Uztarriak webgunean. Gainera, *Urola Kostako Hitzak* hauteskunderen buruzko egunkaria kaleratuko du astelehenean.✱

|||EFEMERIDEAK|||||

1638

Munizioa lortu. Probitziak herri bakoitzak munizioak eskuratzea agindu zuen.

1908

Ezezkoa tranbiari.

Urolaldeko tranbiari buruzko eskariari ezezkoa eman zioten, Espainiako erregearen agindu baten bitartez.

2013

Guibert, erretore. Jose Maria Guibert azpeitiarrak Deustuko Unibertsitateko erretore kargua hartu zuen.

 **Iturria:** Azpeitiko efemerideak.

Herria historian zehar liburua.

||| Egilea: Imanol Elias Odriozola.

||| Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.✱

|||BIDEOAK|||||



Anari, Sanagustin kultur gunean.✱



KIMU BAT
GARDEN



Animaliontzako denda berria

Gure etxeko lagun
iletsu, lumadun eta
ezkatadunentzako
eskaintza zabala!

Urrestilla bidea, 2/g. AZPEITIA

Nuarbe, beti aurrera

Sokatiraren historian lerro garrantzitsuak idatzi zituen taldearen sekretuez badakite zerbait Iñaki Altunak eta Xebastian Gurrutxagak. 📎📞 Mailo Oiarzabal

Martxoaren bukaeraren aurkeztu zuten Nuarbeko sokatira taldearen historia jasotzen duen liburua. Zerotik zeruraino iritsi zen talde haren ibilbidea xehe azaldu du Laxaro Azkunek, lan mardulean. Ez dira asko ia hiru hamarkadako ibilbide horretan hasieratik bukaeraraino aritu ziren taldekideak, eta horietako bi dira Iñaki Altuna (Nuarbe, 1954) eta Xebastian Gurrutxaga (Nuarbe, 1959). Urte eta erdi tiratzen ibili ondoren, gerriko arazoek sokatira uztera eraman zuten Altuna. Tiratzeari utzi bai, baina taldea utzi ez. Inazio Subinasen eta Inazito Aizpururen ondoren, Altuna izan zen taldearen hirugarren entrenatzailea, eta azkena ere bai. “Ezin alde egin, ezin aspertu!”, dio berak, umorez. Gurrutxagak, berriz, sokari tiraka eman zituen taldearen historiako 29 urteak, eta ez edonola. Loretotarren familiako sei anaia igaro ziren sokatira taldetik, eta horietako bat zen Xebastian.

Beste askok bezala, liburua osatzeko berri-ritu dituzte azken hilabeteetan Altunak eta Gurrutxagak 2006an desagertu zen taldearen bueltako istorioak eta historia, eta gauza bera egin dute Uztarriarentzat ere. 1970eko hamarkadaren azken urteetan eta 1980koaren lehendabizikoetan, sokatira taldeak perretxikoak bailiran sortu ziren han eta hemen Urola bailaran; aparraldi hark ez zuen, ordea, asko iraun. Talde gehienak desagertzen joan ziren, baina Nuarbe ez. Nuarbek iraun egin

zuen bidean; eta hazi, hazi eta hazi, beti aurrera, nazioartean puntako talde bihurtu arte. Bilakaera harrigarri horren zergatiak aletzerakoan, helburu bat betetakoan hurrengo koskari heltzeko grina aipatu du Gurrutxagak: “Gauza bat lortzen genuenean, hurrengo urtean hura hobetzera joaten ginen, eta beti gauza berrien bila. Beti onenei eta haiei egiten zutenari begiratu, eta hartara iristeko zer hobetu behar genuen, bai material aldetik, bai edozertan”. Altunaren esaldi honek ondo laburtzen du taldean zuten izpiritu hori: “Ikasi beharra geneukan eta ikastea nahi genuen”.

Urrea, etxean

1978an hasi zen Nuarbe sokatira taldearen

Liburua, salgai

||| **Nuarbe, 29 urteko soka' da Laxaro Azkunek idatzi eta Nuarbeko Sokatira Taldeak Azpeitiko Udalarekin argitaratu duen liburuaren izenburua. 300dik gora orrialdetan, Nuarbeko taldearen ibilbidea ez ezik, Euskal Herriko sokatiraren historiaren zertzeladak eta dozenaka protagonistaren hitzak ere jasotzen ditu liburuak.**

Azpeitian, Sanagustin kulturgunean, Belaetxe liburu dendan, Altuna oinetako dendan eta Loreto enpresaren Landetako biltegian eros daiteke, 15 eurotan.

ibilbidea. Sasoi hartan, ohikoa bihurtu zen herri txikietako festetan inguruko herri eta auzoetako kuadrillek sokatiran indarrak neurtea, eta giro horretan eman zituen Nuarbek ere lehen pausoak. “Orduan jolasa zen, kirola baino gehiago: gazteak, sasoia, herri txikietan, pike sanoa... Eta ondorenean afari ederra, festa giroa”, kontatu du Altunak. Gurrutxagak gogora ekarri du garai hartan herri eta auzo txikietako jaiek zuten indarra, eta orduko beste ezaugarri bat ere bai: “Herrietako gazte jende guztia, adin ezberdinetakoak, elkarrekin ateratzen ginen ondoko herrietako festetara; orain galtzen ari da hori, edo ia galduta dago. Halakoetan sortzen zen askotan elkarrekiko erronka giroa”. Nuarbeko sokatira taldea ere izan zen belaunaldi arteko lotura horren erakusle. “Herri txiki-txikia, eta beti elkarrekin egoten ginenak ginen, 18 urtekoak, 14koak eta 25ekoak”, dio Gurrutxagak. “Zuen tabernak [Loretonekoa] zerikusi ikaragarria izan zian. Taberna bakarra zegoen eta han elkartzen ginen beti. Honek esan duen bezala, gaztetxoak, kuadrillakoak asko, eta beti hantxe”, borobildu du Altunak.

Jolas moduan hasitakoa laster hasi zen kirol itxura hartzen Nuarbeko taldean, baina kuadrilla, familia eta herri giroak ez zituzten bidean galdu. Aitzitik, sokatira taldearen indarguneen artean zeuden horiek, Altunak eta Gurrutxagak aitortu dutenez. “Familia denez, zegoen baten bat ia, eta familia guztie-

tan bizi zuten taldea. Taldeak bizi izugarria eman zion Nuarberi”, gogoratu du Gurrutxagak. Altunak dioen bezala, “irteeretan ere herriko jende asko joaten zen taldeari babesa ematera. Denek pasatzen zuten ondo, denak ziren familia bat bezala, eta horrek ere izan zuen bere garrantzia”.

Baina batasunak eta adiskidetasunak, bere horretan, ez dute sokarik mugitzen. Kuadrilla giroak indarra ematen zion talde hartan kirolerako gaitasun handia zuten gazteak elkartu zirela ezin da ahaztu. Hain herri txikian maila hartako belaualdi bat edo bi egokitzea “suertea ere” izan zela dio Gurrutxagak; eta bat dator, neurri batean, Altuna, “parean tokatu, halakoxe kuadrilla” dioenean, azalpenetan gehiago sakonduta: “Orduan, hemengo gazte gehienek obran egiten zuten lan, edota baserrian. Egindako jendea zen. Beste tokietan ere hala izango ziren, baina...”.

Urrea topatu zuen Nuarbek etxetik irten gabe, eta gainera, lehengai onari zukua ateratzen jakin zuen, dohain fisikoari tonaka jarrrera gehituta. “Balio zuen jendea, eta gogoia zuena” zirela bota du Altunak, eta Gurrutxagak osatu du haren esaldia: “Prestatzeko eta entrenatzeko prestutasuna zuen jendea”.

“Kanpora” joatearen lilura

“Oso ederra izan zen. Kristoren egurra hartu genuen, hori bai”. Altunak horrela azaldu du Nuarbe nazioarteko txapelketa batean lehen aldiz lehiatu zenekoa, “kanpora” –hitz hori erabiltzen dute Altunak eta Gurrutxagak, nazioarteko txapelketez ari direla– irten zirenekoa. 1980an izan zen, taldea sortu eta bi urtera, Suitzan. Berde zeuden nuarbetarrak han aurkitu zituzten aurkariei aurre egiteko, eta atzean saikatu ziren. Baina ez zitzairen joan izana damutu: “Askok gustatu zitzaigun esperientzia. Jende pila bat, egundoko antolakuntza... Egundoko indarra eman zigun giro hark, fisikoki eta kirol aldetik zehatuta gelditu arren. Atzera ez, aurrera egiteko oraindik eta indar gehiagorekin itzuli ginen”. Gurrutxaga soldadutza egiten ari zen eta ezin izan zuen lehen bidaia hartan parte hartu, baina taldearen esperientzia eza agerian uzten duen pa-



Xebastian Gurrutxaga eta Iñaki Altuna, Sokatiraren Museoan.

sartea ekarri du gogora, Altuna eta biak barrez direla: “Goizean pisatzera joan eta ingelesak ikusi zituztenean, denak iher-iherrak, gure Mielek [Gurrutxaga, anaia] hala esaten omen zuen: ‘Hauei? Hauei mantsoagatik irabaziko zieagu!’. Baina, bai zera!”.

Nuarbekoak ikasle finak eta saiatuak izan, orde, eta ez zuten denbora asko behar izan nazioartean ere dominak eta txapelak irabazten hasteko. 1983an lortu zuten lehen titulua: Irlandan izan zen, Europako Txapelketan, klubaren arteko lehiaren eta 560 kiloko pisuan. Handik aurrera, askoz gehiago etorriko ziren, Europako zein Munduko txapelketetan, baita Munduko Jokoetan ere –Joko Olinpikoetan sartzen ez diren kirolen txapelketa–, klubaren arteko lehiaren eta nazioen artekoan. Nuarbe-ko sokatira taldearen uztia izugarriaren begibistako neurria ikusgai dago Nuarben bertan, Sokatiraren Museoan. Ikusten ez denaren neurria ez zen txikiagoa izan. Nuarbek ohorezko tokia dauka sokatiraren historian,

eta talde hartako partaideek gogoan iltzatuta dituzte garai hartako bizipenak. Horien artean, nola ez, arrakasta bakoitzaren ondoren herrian egiten zizkieten harrerak; taldekideei “egundoko betealdia” ematen zien etxekoan eta herrikideen aitortza beroak.

1997an jo zuen goia Nuarbeko taldeak. Urte hartan, Munduko eta Munduko Jokoetako txapeldun izan ziren 640 kiloean, sokatiran “errege” izan ohi den pisuan. Azken Munduko Jokoa izan ziren haiek Nuarberentzat. Twif nazioarteko sokatira federazioak jakinarazi zien aurrerantzean Espainiako ikurren pean lehiatu beharko zirela, eta ez, halamoduz egiten zuten gisan, Euskal Herriaren ize-nean. 2001eko jokoetan lehertu zen egoera, eta euskal ordezkariak nazioarteko txapelketatik kanpo gelditu ziren hainbat urtetan. Kanpora joatearen “pizgarririk gabe”, 2006an hartu zuten “erabaki gogorrena”: taldea desegitea. Behin-behineko erabakia behin betikoa izan zen, azkenean.✱



Pinturak eta Parket Laminatuak 

Pablo VI, 20 - Tel: 943 15 73 25 - www.xabiermargoak.com

ESKELA ZERBITZUA

Uztarrria.eus webgunean
eskela jahi nahi?

Deitu 943-15 03 58 telefonora edo bertara! Uztarraren erredakzioa (Perez Argui plaza 1) behar!

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	02 60 69
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01
Igerilekua	81 41 21
Emakumeen Txokoa	15 70 55
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ekoetxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	02 54 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	08 06 88
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00	Eregi	943 08 06 88
-------	----------	-------	--------------

FARMAZIAK (MAIATZA)

1-6-16-23-29	2-9-14-18-19-24-30
Beristain (Azpeitia).	Arrieta (Azpeitia).
943811949	943811274
4-5-10-13-20-27	7-11-12-17-21-28
Aranburu (Azpeitia).	Alberdi (Efefefe).
943811350	943815974

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Maiatzean, bi hitzordu:
15:ean eta 29:an. 17:00etatik
21:00etara, anbulatorioan.

EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11
Aralar	647 42 59 95
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatua	81 45 18
Natuleuskara taldea	661 10 44 46
Udal Euskaltegia	81 19 47
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA
Asteguna: 08:30-14:00
Larunbata: 09:00-12:30
UDALTZAINGOA
Egun osoz irekita egoten da
ANBULATORIOA
Egun osoz irekita egoten da
IGERILEKUA
Astelehena: 14:00-21:00
Beste egunak: 07:00-21:00
Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00
Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00
Kanpokoa: ekaina arte itxita
KIROLDEGIA
Asteegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00
Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00
LIBURUTEGIA
Asteegunak: 09:00-13:00, 15:30-20:00
Larunbata: 09:00-13:00
Ekaineko azken astean, uztailean, abuztuan: 08:30-14:00. Abuztuko lehen hamabostaldian itxita.
GAZTELEKUA
Asteartea-ostirala: 17:00-20:30
Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



HAUTES-MAHAIA.

Duela urte batzuetara arte udaletxean izaten zen hautes-mahaia Emakumeen Txokora lekualdatu zuten. Aurrerantzean, bertan izango dute hainbat auzunetako bizilagunek boza emateko aukera.

3-8-15-22-25-26-31
Jacome (Azpeitia).
943080258

GAUEZ, URTE OSOAN
Arrieta (Azpeitia).
943811274

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 25 87
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

autobusen ordutegi osoa:
www.uztarria.eus/azpeitia/
autobusak

LEONOR PALMA

Guadahortuna, Granada, Espainia

“Euskaldunak andaluziarrak baino Leialagoak zarete”

Senarraren lana tarteko, orain dela lau urte etorri zen Andaluziatik Azpeitira. Jaioterrira itzuliko da aurki.  Elena Margüello

Zer dela-eta etorri zinen Andaluziatik Azpeitira?

Lanagatik eta maitasunagatik. Duela urte batzuk nire bikoteak bi hilabetetarako lana aurkitu zuen Azpeitian, eta geroago kontratu mugagabea egin ziotenez, 2015eko uda baino lehen Azpeitira abentura berri bat probatzera etortzea erabaki genuen.

Gustatzen al zaizu Azpeitian topatu duzuna?

Bai, ikaragarri. Herriko giroa oso ederra da, alabarentzat osasungarria da Azpeitia eta beti hainbat jarduera egin daitezke bertan. Bestalde, hemen aurkitu dudana jendea sekulakoa da, eta lagun on asko egin ditut.

Zer sumatzen duzu faltan?

Eguzkia, argia eta familia; horiexek bakarrik. Andaluzian familiarik izango ez banu, ez litzaidake hemen gelditzea axolako.

Zertara egokitzea kostatu zaizu gehien?

Horrenbeste euritara. Hasieran, euria egiten zuenean, etxean egoten nintzen. Gainerako guztia oso erraza izan da, eta familiakoei ez zaigu zaila egin egokitzea. Janari ona, giro

ederra eta jende bikaina aurkitu dugu hemen. Euskaldunak itxiak zaretela saldu ziguten, baina ez da horrela; oso leialak zarete. **Zer ezaugarrik desberdintzen dituzte andaluziarrak eta euskaldunak?** Ez dira asko. Ospea guk baldin badugu ere, euskaldunak andaluziarrak baino askoz ere festazaleagoak zarete. Bestalde, euskaldunak leialagoak zarete eta zuen hitza beti betetzen duzue. Andaluzian gehiago gara “*bueno, si eso mañana*” esatekoak.

Eta orain berriro Andaluziara...

Arazo pertsonalak direla-eta Andaluziara itzuli behar dugu; min handiarekin, egia esan. Familiako inork ez du nahi hemendik alde egiterik, baina etapa berri bati aurre egiteko ordua iritsi zaigu. Gero arte batekin goaz.

Andaluziara itzultzean, zer sumatuko duzu faltan Azpeititik?

Janaria, giroa, jendea, herria... Bizi asko duen herria da. Euria ere faltan sumatuko dudala uste dut, nork esango zidan niri! Azpeitiarra bihurtu naiz azkenean. Aurrerantzean, Azpeitira oporretan etorriko gara. Ezagutu ditudan pertsonaei eskerrak eman beharrean nago.✘



1. Palma alabarekin, Zarautzen, Argiñanoren jatetxearen atarian. 2. Palma, Donostian. 3. Andaluziara, Erdikalean duen dendaren atarian Stock Azokan.

632.76 kilometrora dago Guadahortuna



Greba

B

adator greba. Ikastetxe pribatuetako irakasle langileen greba etorri den modura, badator. Aurreko batean ere horixe esaten zuen Sustrai Colina bertsolariak *Jakin* aldizkariaren zenbakietako batean. Ez, juxtu-juxtu, greba egingo genuela, baina etorriko zela greba egingo dugun eguna. Horretaz ari zen. Sortzaileen mixeriaz. Orain prekarietatea esaten diote. Izenak aldatzen gabil-tza beti bizi guztian, besterik aldatzeko gauza ez garelako, nonbait. Lehengo mixeria gorria, prekarietatea da orain. Hitza askoz garbia-go da prekarietatea, dotore antza du, leuna-go da, mixeriaren indarririk ez du. Mixeria hitzaren karga mingarririk ez prekarietate modernoak. Horrelaxe. Lanak gutxi ordainduak dira. Eskatzen duenak agintzen du. Berak jarri ohi du tarifa. Ez dago negoziazio aukerarik. Eta, beti, berak irabazten duena baino askoz gutxiago eskainiko du, baita bere dirutik ari ez bada ere. Beti gutxiago agintzea du lege. "Diru asko da hori", diote "hamar mila" aditu dutenean. Diru asko da hori. Urtean 82.000 euro baino gehiago jasotzen duenak esan dizu. Diru asko da hori. Egia da, diru asko da hori, 82.000 euro, lana eskatu dizunak urtean jasoko duen urteko dirutza. Zuzendaria da, jakina. Lana agintzea du lana. Agintzea du eginkizun. Eragitea. Ez egitea. Ez pentsatzea. Ez arakatzea. Ez ikertzea. Ez eskribitzea. Ez. Horrela, etorriko da greba eguna. Ezer eskribituko ez dugun eguna. Ez proiekturik aurkeztuko. Ez gidoirik. Ez hitzaldirik. Ez irtzi artikulurik. Ez marrazkirik. Ez aldarrik. Ez erreportajerik. Ez istoriorik. Ez nobelarik. Ez poemarik. Ez kanturik. Ez konturik. Ez zutaberik. Ez bertsorik. Ez irudirik. Ez.

Mundu bat isiltzeko

Etorriko da greba eguna eta geroztik ez da lanik egingo hutsaren truke eta debalde. Etorriko da greba greba eta geroztik inork ez dio sortzaileari lanik eskatuko musutruk. Fundizioan ari denari eskatzen ez dioten moduan.



|||||||miel a. elustondo|||||||

|||Etorriko da greba eguna eta geroztik ez da lanik egingo hutsaren truke eta debalde

Edo telebistan lanean ari denari. Edo egunkarian. Edo aldizkarian. Edo eskolak ematen ikastolan, eskolan edota bestelako ikastetxe-ren batean. Etorriko da greba eguna, eta ordura arte egindako lanen ordaina eskatzen hasiko gara. Salatuko ditugu argitaletxe eta egunkari eta aldizkari eta diskoetxe eta udalletxe eta sortzaileen lana aintzakotzat hartzen ez baina haien kontura gizentzen diren -etxe modu guztiak, eta ez dugu ezer sortuko, isiltasuna besterik. Eta mundu hau kanposantua izango da, hitzik, irudirik, doinurik gabe. Mundu bat isil. Isil bete mundu. Orduantxe itzalaldia. Eta munduaren akabera izango da orduan. Eta munduaren akabera ez bada, haren antza izango du. Badator greba. Ikastetxe pribatuetako irakasle langileen modura, badator. Aurreko batean ere horixe esaten zuen Sustrai Colina bertsolariak *Jakin* aldizkariaren zenbakietako batean. Jakinaren gainean zaudete.*



TiEN21 ESNAOLA

ZATOK
DENDA BERRITUA
EZAGUTZERA!



Pablo VI, 3 · Tel.: 943 08 03 55 · esnaelek@outlook.com

ESLOVENIA

JULIOTAR ALPEETAN TREKINGa

Abuztuaren 16tik 23ra bitartean
Europar Ekialdeko muturreko
Juliotar Alpeetan glaziarak,
harri kristalezko estalakitak eta
estalagmitak, larre koloretsuak,
Bledoko lakua eta Berdako
eleiza, eta hiri dotore bezain
paketsuak aurkituko ditugu,
besteak beste

EGIPTO

URRIAREN 9tik 19ra NILO IBAIADARRETIK ZEHARKALDIA

Irteera Azpeititik.
Gidalguna bidai osoan zehar.
EDFÚ, KOM OMBO, ASWAN,
KARNAK TENPLUA, LUXOR
TENPLUA, ERREGEEN HARANA,
HATSHEPSUL TENPLUA,
MEMNON-EK KOLOSOAK, ABU
SIMBEL TENPLUA, GIZAKO
PIRAMIDEAK, ALABASTROKO
MEZKITA, ETB.

maitelazkano.com



Halcón
bidaiak

Jose de Artetxe Kalea
14-16
AZPEITIA
943 810673
mlazkano@halcon-viajes.es